

Berrigara

Antzinako Bergara

Herriak ezagutu dituen aldaketei buruzko erakusketa



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefona eta faxa: 943 76 70 58





Zabaldu berria


Irala kaleko 5ean!



... eta emakume gazteendako moda!



Ibargarai 10. 943 76 00 85




CLINIQUE

Alergien aurkako probak gairidituak.
100% lurrin gabeez.

Oparia daukagu zuretako: Ziurra arrakasta.

Martxoaren 8tik 13ra



Nora doa abertzaletasuna?

Iñazio Arregi / Irakaslea

Lizarrako ituna eta Daewori euskal instituzioek emandako laguntzei buruzko Europako Batzordearen erabakiak, garrantzia handiko gertakizunak dira nahiz eta politikarien esparru desberdinetan kokatu behar diren. Lehenengoa, herri honen zati batek nazional arazo gordin bati eskaintzen dion irtenbide saiakera bat da. Bigarrena, aldiz, estatu baten ahalmen arau-mailea murrizten duen erabaki zehatza.

Batek, Europako bi estatutan aldatzeko eragin nahiko lituzke, edo eragiteko aukerak aztertu nahiko lituzke. Bigarrena, Europako zati batek beretzat aukeratu duen bidearen ondorioa da; Mugen desagerketa, lehia hobezinaren esparruan Europar Batasunak hartzen dituen erabakiak, estatu bakoitzeko banku zentralen ahalmenen murrizketa, nekazal politika, ... gure inguruan ematen ari diren eraldaketen islada dira. Azken batez, estatu klasiko, boteretsu, zentralista, ahalmen-guztidunaren baitan ematen ari diren aldaketen adierazle.

Ez dirudi bigarren prozesu hau bat batean etengo denik, ez baitago horren aurka egin duen indar sozial edo politiko aipagarririk. Gauzak honela, begi bistakoa da gaur egungo estatuetan oinarrituko dela Europa berria. Horrela dio otsailaren 27ko Egunkarian D. Cohn Berdeen europarlamentariak ere: Europa irudikatzen ari da. Baina ez da estatuak desagertarazteko xedearekin. Euroeskualdeak garatzen ahal dira baina estatuen baitan". Aurrerago: "Horrela independentziari buruzko gerlako aizkora lurperatu ahalko da", eta "Eskualdeen Biltzarrean bere tokia izanen du euskal euroeskualdeak, baina ez da euskal estatuaren ordezkaria izanen".

"Ze irtenbide eskaintzen dute autodeterminazio prozesu baten aterabide bezala Lizarrako hitzarmena izenpetu zuten alderdi abertzaleek?"

Ondorioz, eta Europaren eraikuntzari buruzko ikuspegi horri gurean herri gintzari buruz dauden sentsibiltate desberdinak gehitzen badizkiogu, politiko abertzaleak noraezean ari direla esaten ausartuko nintzateke. Txalo bat Lizarrarentzat baina gero zer? Autodeterminazioa bezain printzipio demokratikorik aldarrikatzea ez da nahikoa gero irtenbide posiblek ez badugu. Nola ulertu behar dira subiranotasuna, edo Nafarroako, Iparraldeko eta Hegoaldeko eskualdeen lurraldetasuna? Noraino da posible independentzia gaur egungo European? Ze irtenbide eskaintzen dute autodeterminazio prozesu baten aterabide bezala Lizarrako hitzarmena izenpetu zuten alderdi abertzaleek?

Iruditzen zait gaur eskaintzen zaizkigun proposamenak duela 100 urtekoen antzekoak direla eta ez dituztela kontuan hartzen emandako eta eman-go diren aldaketak. Proiektu jakin gabe zaila gertatuko zaigu ilusioa piztea edo eroso bizi direnak martxan jartzea. **B**

barruan




Jon Anduaga

Deba Garaiko Gurutze Gorrikoa

"Larrialdi zerbitzurako boluntarioekin bakarrik jardutea oso nekeza da"

8.



Nerea Olabide

Futbito jokalaria

"Bergarako nesken artean futbolarekiko interes handia dago"

21.



Bego Arizabaleta

Tartufo jatetxekoa

"Hasierako urtietan Bizkaixa eta Goierri aldeko bikotiak be etortzen ziran gurera"

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1981. Martxoaren 9an Telesforo Monzon hil zen. Hainbat kargu politiko bete zituen bere bizitzan: herriko zinegotzi, Madrilgo gorteetako diputatu, Eusko Jaurlaritzako kontseilari, Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkide... Euskal idazle gisa ere lan handia egin zuen. Euskaltzain urgazle 1966az geroztik.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1471. Martxoaren 4an Haroko konteak Castro Urdiales Bizkaitik banatzeko agindua zabaldu zuen.

1746. Martxoaren 2an Martin Apeztegia, sasoi hartako Espainiako mutil altuena, hil zen Erratzun.

1976. Martxoaren 3an poliziak Gasteizen bost langile hil zituen eta beste hainbat zauritu.

1992. Martxoaren 3an hogeii euskarazko liburu braillera z kaleratu ziren lehenengo aldiz.

MUNDUAN GERTATUA

1961. Hassan II.a Marokoko errege aldarrikatu zuten.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzeta 26

12-15-22-35-36-40 (osag.41/itz.0)

Astelehena 1

7-14-25-29-37-47 (osag.42/itz.7)

Martitzena 2

7-11-23-41-48-49 (osag.5/itz.1)

Eguaztena 3

3-7-25-32-36-42 (osag.28/itz.6)

PRIMITIVA

Zapatua 27

7-16-18-21-32-42 (osag.44/itz.0)

Domeka 28 Saritzarra

4-18-23-24-31-36 (osag.44/itz.5)

ONCE

Eguakitzeta 26: 21.822 (050 seriea)

Astelehena 1: 67.696

Martitzena 2: 83.411

Eguaztena 3: 12.271

Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Azken egunotan bezala, asteburuan ere euria eta hotza nagusituko dira. Itsasaldetik haize traketsa etorriko zaigu eta, tarteka, euri zaparradak, txingorra eta trumoiak izango ditugu. Etxean egoteko moduko eguraldia, beraz.

Eguzkia

Domeka, martxoak 7



Sortu: 07:43



Gorde: 19:17

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

Ilargiaren aldiak



Ilbete: martxoak 2



Ilbehera: martxoak 10



Ilberri: martxoak 17



Ilgora: martxoak 24

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 25	12	7	-
Eguakitzeta 26	19	8	-
Zapatua 27	10	6	16,5
Domeka 28	13	5	-
Astelehena 1	17	0	-
Martitzena 2	17	3	0,7
Eguaztena 3	12	5	19,8

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Antzua

Umerik egiten eta esnerik ematen ez duen aberea edo pertsona. Antzutasuna pasakorra edo betirakoa izan daiteke.

- Bei ori antzua da eta okelara saldu biakou.



Jose Okina

hamaika ikusteko jaio ginen!

Amaren esnea

Amaren esneak dituen osagai elikagarriak behar dituzten umeendako eta helduendako esne-bankua sortu dute Californiako San Josen. Esne-bankua paraje haietako emakumeen dohaintza altruistei esker osatzen da. Amaren esnez betetako pote batek (25 zentilitrokoa) 375 pezeta inguru balio du eta eskuratu ahal izateko medikuaren errezeta behar da.

Farmaziak

Eguakitzeta 5:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 6:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 7:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 8:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitzena 9:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 10:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 11:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 7: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak 112

DYA 943 78 71 57

Gurutze Gorria 943 76 55 76

Larrialdia 943 46 11 11

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Anbulantzia 943 55 49 62

Udaltzaingoa 943 77 91 06

Ertzaintza 943 76 53 40

Suhiltzaileak 943 78 28 00

Osasun Etxea 943 76 24 40

Arrasateko ospitala 943 03 53 00

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren 943 45 01 31

PESA 902 10 12 10

Taxiak 943 76 19 50

RENFE 943 28 35 99

UDALA

Udaletxea 943 77 91 00

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 57

Kultur Etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 62

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 56 67

Jubilatuena Etxea 943 76 21 40

Postetxea 943 76 26 05

zorion agurrak

Berrigara 359an, **MARTXOAREN 12a** eta **18a** bitartekoan zorion agurrak argitaratuko dira.



Raul Coma
Martxoaren 10ean
18 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Rakel Tena
Martxoaren 6an
19 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Isabel Gurrutxaga
Martxoaren 7an
83 urte. Urte
askotarako ama!
Etxekoak.



Aitor Elizburu
Martxoaren 8an
4 urte.
Urte askotarako!
Ander eta Miren.



Uxue Zenitagoia
Martxoaren 7an
13 urte. Urte asko-
tarako! Amama Lo-
ren eta anaia Aitor.



Nuria Fernandez
Martxoaren 7an
14 urte. Urte asko-
tarakoeta musu
handi bat! Familia.



Raul Del Pozo
Martxoaren 10ean
21 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Oihana Garai
Martxoaren 7an
11 urte. Urte asko-
tarako eta musu
bat! Familiakoak.



Izar Morillas
Martxoaren 5ean
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Tomas Eguren
Martxoaren 7an
77 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Beñat Gonzalez
Martxoaren 11n
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gorka Larrañaga
Martxoaren 7an
10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ander Zangitu
Martxoaren 5ean
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Begoña Poza
Martxoaren 5ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Natalia.




Mikel Garcia
Martxoaren 6an
urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ana Garcia
Martxoaren 5ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Imanol Berroia
Martxoaren 8an
8 urte. Urte asko-
tarako! Familiakoak
eta lagunak.



Alaitz Urkiola
Martxoaren 5ean
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



David Rodriguez
Martxoaren 6an
20 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Iraia Olivas
Martxoaren 5ean
8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Markel Lete
Martxoaren 10ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ane Etxebarriarteun
6an urtebetetzea.
Urte askotarako eta
muxu handi bat!
Alatz eta Ander.



Maddi Alberdi
Martxoaren 8an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Bittori Larrañaga
Martxoaren 6an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Tomasa Alberdi
Martxoaren 7an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Ainhoa,
Maitane eta Irune.



Ibane Baseta
Martxoaren 8an
10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iñigo Macho
Martxoaren 9an
8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




Jokin Gomez
Martxoaren 10ean
4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

ESKELA

Felisa Azorero Martin

Jose Maria Beatoren ama

Salamancan hil zen otsailaren 15ean.
Bere oroimenezko meza
domekan, martxoak 7,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

MEZA

Patricio Rodriguez Acosta

Antzuolan hil zen 1999ko otsailaren 4an, 61 urte zituela.

Bere oroimenezko meza domekan,
martxoak 7, eguerdiko 11:30etan,
Antzuolako Errukizko Amaren parrokian.
Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



ESKELA

Luis Damian Urbelua Ugarte

"Kubala"

Itziar Ugarteren semea

Brasilen hil zen 1999ko otsailaren 15ean, 46 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.*

Zure familia.



hildakoak

BERGARA

Bonifacio Aranzabal Laskurain
Otsailak 25, 82 urte
Rosario De Castro Mata
Otsailak 26, 86 urte
Teodoro Agirre Ondarra
Otsailak 28, 75 urte
Francisca Aranzabal Laskurain
Martxoak 1, 72 urte

jaioetakoak

BERGARA

Andrea Gonzalez Valle
Otsailak 20
Ane Laskurain Arrese-Igor
Otsailak 20

ANTZERKIA

- ▶ **"Ristorante inmortale"** gaur, eguakitza, 22:30etan Elorriko Arriolan, Teatro de Mascaras taldearekin.
- ▶ **Eibarko XXII. Antzerki Jardunaldiak:** astelehenean, hilak 8, Teatro El Cruceren **"Maria Sarmiento"**; martitzenean Ados taldearen **"Desperrados"** eta eguakitzean, hilak 12, **"101 años de cine"**, Mariano Marin-Angel Ruiz konpainiaren eskutik. Emanaldi guztiak Unibertitate Laboralean 20:30etan.
- ▶ **"Leccion de orgasmo"** La Patro antzerki taldearekin bihar, zapatua, 22:00etan Elgetako Gaztetxean.
- ▶ Legaleon taldearen **"Mujeres al rojo vivo"** domekan, 19:30etan, Arrasateko Amaia antzokian.

MUSIKA

- ▶ **Dictators eta The Hot Dogs** gaur, 22:00etan Jam aretoan. Bihar, zapatua, ordu berean, **C.V. eta The Animals.**
- ▶ **Morau** gaur, eguakitza, 22:30etan Elgetako Gaztetxean.
- ▶ **Kashbad, Zea Mays, Dantzut, Anari eta Labrit Zabala eta 2 kate** dantza taldea bihar, zapatua, 22:30etan Arrasateko Kiroldegian.

ERAKUSKETA

Bergara iruditan

Noiz: martxoaren 21era arte
Non: Udaletxeko Pleno aretoan

Gaur eguakitza, arratsaldeko 7etan, "Bergara iruditan: azken 40 urteetako alaketak" izenburuko argazki erakusketa inauguratuko da Udaletxeko Pleno aretoan. Erakusketa honek mende honen bigarren erdian Bergaran izan diren aldaketa urbanistikoak erakusteko helburua dauka, bide batez, Udal Agiritegiko argazki fondoa ezagutzera emanez. Hala ere, oraingo honetan, erakusketaren esparru geografikoa mugatu behar izan da eta herriko toki jakin batzuetako argazkiak ikusi ahal izango dira bakarrik. Partikularrek Udal Agiritegian lagatako erretratuak, jasotako dohaintzak edota beste hainbat erakunderen argazkiak dira gehienak. Besteak beste, erakusketan jarriko diren paneletan, Espoloia, San Antonio, Martoko, Zubiaurre, Labegaraieta, Zabalotegi, Bolu, Santa Marina, Matxiategi, Zubieta, San Lorentzo, Fraiskozuri, Irizar edota Ibargarai kaleetako irudiak zintzilikatuko dira. Zonalde bakoitzeko, 1961ean airetik egindako argazkiak, 1999ko argazki orokorrak eta egondako aldaketen lekuko diren argazkiak jarriko dira ikusgai. Gainera, zonalde bakoitzaren eboluzioa azaltze-



1962 inguruko argazkia. Galartzaneko etxeak egiten.

ko argazkiak testu batez lagunduta jarriko dira. Esan bezala, ez dira Bergara osoko argazkiak egongo eta Angiozar, Elorregi, Elosua, Osintxu, San Juan edota Uberako auzoen irudiak hurrengo batean erakutsiko ditu Udal Agiritegiak.

Erakusketa astebarruan 18:00etatik 21:00etara ikusi ahal izango da eta asteburukaren, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

- ▶ **Rogelio Botanz** eguenean, hilak 11, 22:00etan Elgetako Gaztetxean.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Usoa Mendikuter**en mar-goak Nahikarin.

IKASTAROAK

- ▶ **Fandango eta arin-arin ikastaroa** helduentzat, Moises Azpiazu dantza taldearen eskutik, zapatu goizetan 11:00etatik 12:30etara. Izenematea (2.000 pezeta) eta argi-

bideak 943 76 15 40 zenbakian.

LEHIAKETAK

- ▶ **Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketan XVII. ediziorako kartel lehiaketa.**

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A



OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29



LASA
Jatetxea

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Lanak, edozein teknika eta material erabiliz, 450 mm. (zabalera) x 680 mm. (altueran) neurietan aurkeztu behar dira. 150.000 pezetako saria irabazlearentzat. Lanak aurkezteko epea martxoaren 31n bukatuko da. 943 15 72 00.

DEIAK

► **Iñigo Martinez "Memín"** zenaren omenez Irukerutzetara mendi irteera bihar, zapatua, 9:00etan San Martin plazatik. Ondoren, jaitsiera eta bazkaria. Martxoaren 3an 5 urte bete dira "Memín" hil zela.

► **Mendi irteera** Mendaurrera domekan, hilak 7, Alpino Gorlak eta Pol-Polek antolatuta, goizeko 8etan Frontoitik. Txartelak Lazkano zapatadendan eta Pol-Pol Mendizale Elkartean salgai.

► **Hitzaldia: "Adoleszentziaren problematika"**, astelehenean, hilak 8, 19:00etan Ipintza Institutuko aretoan. Hizlaria: Xabier Tapia.

► **Emakumearen eguna ospatzeko txokolatada** antolatuta du Udalak astelehenean, 17:00etan Antxoni. Udalak antolatutako ikastaro eta jardueretan parte hartzen dutenak gonbidatuta daude.

► **Emakumearen eguna. Manifestazioa** astelehenean 19:30etan Arrasaten, Sebero Altube plazatik abiatuta. Aurretik, 17:00etan,

"Emakumea zahartzen doan gizartean" hitzaldia Monterronen. Eguaztenean, "Lesbianismo y movimientos feministas" gaiari buruz jardungo du Uribarri Alberdik 19:00etan Monterronen.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 10, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **EAJren ezohiko batzarra** eguenean, hilak 11, 20:00etan Batzokian.

► **San Joxepe** elkarteak mendi irteera egingo du eguaztenean, hilak 10, Zumarraga-Santa Barbarara. Goizeko 8etan Beheko Estaziotik.

► **"Ertzainak"** telesailerako **kastinga** eguakitzean, hilak 12, 15:00etatik 19:00etara Kultur Etxean. 25 urtetik gorakoentzat.

► **Deba Garaiko Abelazle Elkarteen Ohiko Bilkura** domekan, hilak 7, Arrasateko Udaletxean, 11:30etan.

KINTADAK

► **1946an** jaiotakoan afora martxoaren 13an Tartufo jate-txean. Izen-ematea Tartufon bertan, 943 76 35 51 zenbakian.

► **1974an** jaiotakoan bazkaria martxoaren 13an Zabala jate-txean. Izen-ematea (2.500 pezeta) Euskadiko Kutxako 009.0.04589.1 kontuan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

The general

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Titanic town

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Mas alla de los sueños

Eguakitza: 22:00.

The general

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Tienes un e-mail

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Regreso al paraíso

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:00, 22:15.
Domeka: 19:00, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

¿Conoces a Joe Black?

Eguakitza: 22:30
Zapatua: 19:30, 22:30
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Dos chicas de hoy

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola

El milagro de P. Tinto

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

La tregua

Eguena, zine-kluba: 20:15.

THE GENERAL

Zuzendaria: John Boorman.

Aktoreak: Brendan Gleeson, Adrian Dunbar, John Voight.

John Boorman ingelesaren (*A quemarropa*, *La selva esmeralda*) azken filmeak zuzendaritza onenaren saria jaso zuen iazko Canneseko Jaialdian. Jenerala ezizenez ezaguna den *Martin Cabill* (Brendan Gleeson) Dublineko auzo marjnatuenetako batetik dator eta berak zuzendutako lapurretekin indarrean dagoen sistema hankaz gora jartzen ahaleginduko da, IRARI berari ere aurre eginez...

TITANIC TOWN

Zuzendaria: Roger Michell.

Aktoreak: Julie Walters, Cirian Hinds, Nualla O'Neil.

1970ko hamarkadaren hasieran *McPhelmy* familia Belfastko mendebaldera joango da bizitzera, IRA eta britaniar ejerzitoaren arteko liskarren lekuko izanik. Tiroketa batean familiaren lagun bat hil ondoren, *Bernie* (Walters) ez da isilik geratuko... Locarnoko Jaialdian zuzendari onerari zegokion saria jaso zuen.



BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE FERRETERIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOXO-TOKI
Iraila 3. Tf. 943 76 12 35
Martitzegia 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

Gipuzkoako Gurutze Gorria eta Jaurlaritzako Barne eta Osasun saila ez dira ados jarri aurten go hitzarmena sinatzeko orduan. Hori dela eta, Gipuzkoako Gurutze Gorriak laga egin dio larrialdi kasuak atenditzeari.

G. Zer gertatu da Jaurlaritzarekin adostasunik ez lortzeko?

E. Urtetik urtera, 1991etik hona-edo, Jaurlaritzarekin lankidetzaren hitzarmena berritzen joan izan gara baina aurten ezinezkoa gertatu da akordiorik lortzea. Orain dela 2 urte 3 milioi pezeta eta joan zen urtean 5 milioi (oraindik kobratzeke ditugunak) eman zizkiguten urteko gastuei (anbulantzien mantenimendua etabar) aurre egiteko. Aurten, berriz, beste proposamen bat egin genien, zerbitzu profesionalagoa eskaini nahirik, izan ere gero eta nekezagoa da boluntarioekin bakarrik lan egitea, batez ere astebarruan, gaur egun lanean ari direlako gehienak. Jaurlaritzak ez zuen asmo onik azaldu negoziatzeko orduan eta, beraz, ezinezkoa izan zen hitzarmena sinatzea.

G. Zelakoa zen zuen proposamena?

E. Anbulantziak leku estratejikoetan kokatu eta zerbitzua jende kualifikatuak eskaintzea zen gure helburu nagusia. San Prudentzian bi ambulanzia izanik eta ambulanzian bakoitzean txoferra eta bi sanitario doazela kontuan hartuz, sei-zortzi pertsona egotea beharrezkotzat jotzen genuen zerbitzua egunero 24 orduz eskaini ahal izateko. Horrez gain, Deba Garaian ambulanzian medikalizatu bat martxan jartzeko asmoa zeukan Gipuzkoako Gurutze Gorriak.

JON ANDUAGA

Deba Garaiko Gurutze Gorriko kidea

“Larrialdi zerbitzua jende kualifikatuak eskaintzea zen gure helburu nagusia”



Jon Anduagak 12 urte daramatza San Prudentzioko Gurutze Gorrian.

Aurrekontua, guztira, 20 milioi pezeta ingurukoa zen, baina Jaurlaritzak ezezkoa eman zigun eta gu, aldiz, ez ginen prest lehengo baldintzetan jarraitzeko.

G. Nork betetzen ditu orain larrialdi kasuak?

E. Jaurlaritzak Eusko Emergentsia-Ambulancias Gipuzkoa enpresa pribatuaren esku utzi du oraingoz

“Boluntarioekin bakarrik jardutea gero eta zailagoa da. Jaurlaritzak ez zuen asmo onik azaldu eta ezin izan genuen akordiorik sinatu”

larrialdi zerbitzua. Dena den, Deba Garaiko Gurutze Gorriak mantentzen du oraindik ambulanzian bat, kasu oso larrietan moraliki irtetzera behartuta gaudelako. Teorian behintzat zerbitzu hori lehiaketa publikora atera beharko luke Jaurlaritzak eta asmo hori zutela adierazi ziguten lehen ere, baina martxoan gaude eta ez da horren inguruan ezer kaleratu oraindik.

G. Zein da zuen zeregin nagusia gaur egun?

E. Beste zerbitzu batzuk eskaintzen jarraitzen dugu: kirol ekintza eta kultur jaialdiarako prebentzio lana, adineko pertsonen garraioa Eguneko Zentroetara, nazioarte mailako kooperazio departamentua edota behartsuen artean egiten den elikagaien banaketa (30 Tona inguru urtean). Bestalde, jendearen formakuntzarekin jarraitzen dugu, sekulako garrantzia duelako; kalean gertatzen diren istripuetan hasierako atentzioa egokia izatea behar beharrezkoa da. Era berean, boluntario izatearen garrantzia zabaldu behar da gizartearen oraindik ere.

G. Lanean jarraituko duzue, beraz...

E. Ertzaintza eta suhiltzaileak heldu baino lehen erreskate lanak guk egiten genituen eta gero beraiek hartu ziguten erreleboa, arazorik gabe. Orain, ganorazko larrialdi zerbitzua jartzen badute, guztion onerako izango da, baina pena daukagu urtetan hartutako esperientzia horren modu drastikoan apurtzeagatik. Iaz 2.700 emergentsia bete genituen gure bailaran eta guztietara heldu ginen boluntarioen lanarekin. Gurutze Gorriak bertan jarraituko du; instituzio publikoak helitzen ez diren lekuetan egotea gara askotan. **B**

Matxiategiko aparkalekuak modu ilegalean egiten ari direla dio HBk

Oposizioaren iritziz Arau Subsidiarioak ez dira errespetatu

Matxiategi kalean, hilerri ondoan dagoen orubean, Udaleko brigada egiten ari den obra modu ilegalean egiten ari direla salatu du HBk.

Oposizioko kideen esanetan, Udalean hainbat aldiz salatu dute lan hauek modu desegokian egiten ari direla, baina kasurik egin ez zaienez, prentsaren aurrean agertzea erabaki dute. Horrez gain, gaia eztabaidatzeko Pleno bat konbokatzea eskatu dute. Plenoa astelehenean izango da.

Kanposantu ondoan egiten ari diren aparkaleku berrien inguruan beren iritzia azaltzeko agerraldia egin zuten martitzenean Jesus Mari Garitano eta Aitor Aranzabal HBko zinegotzietatik. Garitanok adierazi zuenez, Matxiategi kalea, 38 Area, bere garaian Instituto Nacional de la Vivienda zenak desjabetu zuen, bertan etxeak eraikitzeko. Etxeak egin zituzten, baina orube bat geratu zen etxebizitzarik egin barik, hain zuzen ere, kanposantu ondokoa.

Bestalde, demokrazia garaian, lursail horien jabe-



Dagoeneko hilabete inguru badabiltza lanean kanposantu ondoko orubean.

tza Eusko Jaurlaritzaren eskuetara pasatu zen. Jaurlaritzaren hasierako asmoa, orube horretan babes ofizialeko etxebizitzak egitea izan zen, baina Udala asmo horien kontra azaldu zen, Matxiategi kalean nahikoa etxebizitza zegoela eta berde guneak, berriz, urriak zirela argudiatuz. Bergarako Udalaren arrazoiak aintzat hartu eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko beste lursail batzuk eskatu zituen Jaurlaritzak. Udalak

Artzamendiko lursailak eman zizkion Jaurlaritzari eta urbanizazio planak aldatu egin ziren.

Urte batzuk geroago, Arau Subsidiarioak onartu ziren. Jesus Mari Garitanok azaldu zuenez, Arau Subsidiarioetan jasota geratu zen kanposantu ondoko orubean plaza publiko bat egingo zela eta honen azpian garaieentzako bi solairu. "Argi geratu da, beraz, kasu honetan gobernu taldeak ez duela Arau Subsidiarioak

esaten duena bete eta obra hasi aurretik, gutxienez, Arau Subsidiarioak aldatu egin beharko lirateke. Ez dugu eztabaidatu nahi aparkalekuak beharrezkoak diren ala ez. Esaten duguna da, obra horiek legez kanpo egiten ari direla" esan zuen Garitanok.

Horrez gain, obra horien nondik-norakoak Hirigintza batzordean eztabaidatu ez izana eta lan-proiekturik aurkeztu ez izana salatu zituzten HBko zinegotzietatik. Lanok Gobernazio batzordetik bideratu ei dira eta horrelako kontuak Hirigintzatik eroan beharko liratekeela esan zuten. "Prozedura akats ugari dago hemen: obra-proiekturik ez da aurkeztu, Arau Subsidiarioak ez dira errespetatu eta Arau Subsidiarioak aldatzeko Plenorik ez da egin" esan zuen Aitor Aranzabalek.

Alkateak, bestalde, aparkalekuez gain arbolak, bankuak eta plaza baten beste elementu batzuk egingo direla adierazi du eta Arau Subsidiarioen aurka joan diren jakiteko Udala arkitekturekin harremanetan jarri dela esan du. **B**

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Biko

BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

Deco-Textil
ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
943 76 08 69



Inhabilitatuak izan diren intsumisoei laguntza eskaintzea da Eudimak bultzatuko duen Herri Akordioa.

ARTXIBOA

Udal Intsumisioen Elkarteak Herri Akordioa bultzatuko du Intsumiso inhabilitatuei laguntza ekaintzeko

Eudima, Euskal Udal Intsumisioen Mankomunitateak, batzar orokorra egin zuen joan zen otsailaren 20an Oiartzunen. 1999ko plangintza onartu zen eta, bestalde, zuzendaritza batzordea ekainera arte, udal hauteskundeak egin arte, ez aldatzea erabaki zen. Horrez gain, orain dela 3 urte Eudima sortu zenetik egin den lanaren balorazioa egin zen. Urte hauetan Edimaren lan jarduna arlo judizialera bideratu da batik bat.

Aurrerantzean, ordea, Eudimaren helburuak gizarteratzea eta komunikabideekin harremanak sendotzea izango da elkartearen zeregin garrantzitsuenak. Herri Akordioa alderdi politikoek,

sindikatuak, enpresarioek eta intsumiso taldeek sinatzea izango da helburua.

Lau puntu jasotzen ditu Herri Akordioak: inhabilitatuak izan diren intsumisoei elkartasuna adieraztea; inhabilitatutako gazteak habilitatzeko egin daitekeen guztia egitea; inongo armadarekin ez kolaboratzea eta Euskal Herria desmilitarizatzen ez den bitartean, konpropiso honi eustea. Apirilaren 17an Iruñean egingo den manifestaziorako deia egin du Eudimak eta ordura arte Eudimaren helburuak gizarteratu eta Herri Akordioa sinatuko dira.

33 herritako udalak dauka ordezkatuta Eudiman, tartean Bergara eta Antzuoa-

lakoak. Mikel Eguren (HB) eta Juan Mari Garitano (EA) dira Eudiman Bergarako Udalaren ordezkariek. Eguren, gainera, zuzendaritza batzordeko kidea da.

Bergarako Udalak ordaintzeke ditu azken bi urteotako Eudimako kuotak eta aurtengo udal aurrekontuetan ere ez da aurreikusi horretarako dirurik, Udaltzarako kuotak ordaintzea onartuta izan arren. 650.000 pezeta inguru dira Bergarako Udalak Eudimari ordaindu barik diona. Alkateak sarritan adierazi du Eudima guztiz legala ez dela eta, horregatik, ez zaiola kuotarik ordaintzen eta EAEko udalak biltzen dituen erakundeak Eudel dela.

Bergarako Bihargintza S.A.ren Administrazio Kontseilukideak izendatu dira

Bergarako Bihargintza S.A., Bergaran industria-jarduerak garatzeko erabat udalaren diruz osatutako sozietate anonimoaren Administrazio Kontseiluko kideak izendatu zituen astelehenean Udaltzarak. Honako hauek osatuko dute Erredakzio Kontseilua: Victoriano Gallastegi, Javier Gabilondo eta Koldo Pereira (EAJ); Jose Antonio Etxeberria (EA) eta Alvaro Esparza (PSE-EE). Izendapena gobernu taldeko zinegotzien botoekin onartu zen; HBk kontra bozkatu zuen. Udala gestionatzeko orduan marginatuta sentitzen dela salatu zuen oposizioak. Bestalde, Martokoko aurrekoletako gela bat aisialdian atzeratuekin lan egiten duen Atzegiri lagatzea ere onartu zuen Udaltzarak aho batez.

Eguen eguerdian beste Pleno bat ere egin zen. Eibar-Gasteiz autopista egiteko Bergarako Udalerrian (Hondartzatik Labegaraietara) egingo diren desjabetzen barruan hartu beharreko ondasun eta eskubideen gaineko alegazioak onartu ziren Plenon. San Kristobalگو isurtzea, eta Santalde, Aldeta-Azpikoa (baserri hau bota egingo da) eta Aldeta-Gainekoa baserri eragiten die desjabetzen Herri Batasunako zinegotziek ez zuten Plenoan parte hartu.

Fit Automocion enpresa Merkatal Ganbarak saritua

San Juan auzoan kokatuta dagoen Fit Automocion enpresak, atzerriko enpresa batek iaz Gipuzkoan egin zuen inbertsiorik aipagarrienaren saria jaso zuen eguaztenean Hondarribian. Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak, Bombas Itur eta Fagor Automation enpresak ere saritu ditu aurten. Fagor Ederlanek eta Continental multinazional alemanak sortu zuten Fit Automocion 1997. urtean. Une honetan 40 langile ari dira bertan eta hurrengo bi urteetan beste 35 lanpostu sortzea aurreikusi dute. Bi urte hauetan 1.330 milioi pezeta inbertitu dituzte eta, 2000. urtera ar-



Atzerriko inbertsio aipagarrienaren saria jaso du San Juango enpresak.

te, beste 1.500 milioi pezeta inbertituko dituzte. Ibilgai-luentzako balaztak egiten dira Fagor Atomocion-en

eta iaz 1.900 milioi pezeta fakturatu zituen. Saria Pedro Macon enpresako presidentek jaso zuen.

"Bixkai" presoak gose grebari laga dio baraurik 7 egun izan ondoren

Ourenseko espetxean dagoen Iñaki Arietaleanizbeaskoa "Bixkai" preso bergararrak gose grebari laga zion astelehenean, kartzelako zuzendariarekin elkarrizketatu eta gero. Bergararrak eta Jokin Santxo iruñearrak joan zen astelehenean ekin zioten gose grebari, biak modulo berean jartzea eskatzeko. Hilabeteko epean elkarrekin jarriko zituela esan zien astelehenean espetxeko zuzendariak. Arietaleanizbeaskoak 6 kilo galdu ditu, baina osasun egoe-ra onean dago.

CAMBRIDGE

EXAMINATIONS, CERTIFICATES AND DIPLOMAS
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE



**University of Cambridge
Local Examinations Syndicate
International Examinations**

Matrikulak martxoaren 1etik 11ra AZTERKETAK ETA DATAK

Young Learners (Starters, Movers, Flyers)	Ekainaren 5ean
K.E.T. (Key English Test)	Ekainaren 12an
P.T.E. (Preliminary English Test)	Ekainaren 12an
F.C.E. (First Certificate English)	Ekainaren 19an
C.A.E. (Cambridge Advanced English)	Ekainaren 16an
C.P.E. (Cambridge Proficiency English)	Ekainaren 17an
B.E.C. 1 (Business English Certificate 1)	Maiatzaren 29an
B.E.C. 2 (Business English Certificate 2)	Ekainaren 5ean
B.E.C. 3 (Business English Certificate 3)	Maiatzaren 29an

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK:

ARRASATE	Parlance	943 77 06 83	ELGOIBAR	Key Ingeles Akademia	943 74 30 44
BERGARA	Espolon School of English	943 76 03 53		Kensington School of English	943 74 02 36
DURANGO	Compubit English Institute	94 620 20 20	LEKEITIO	Anglo-American Link Idiomas	94 684 14 15
EIBAR	Anglo-American	943 20 64 57	ONDARROA	Howdy Academy	94 613 43 26
	Link Idiomas	943 20 39 59	OÑATI	A & M School of English	943 71 61 37
	Ukitze	943 70 25 59			

Berrigara

358 zenbakia.
1999ko martxoaren 5a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.

Erredakzioa: Eneko Azkarate,
Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.

Publizitatea: Uxue Zabaleta.

Harpideta: Itziar Kortabarría.

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Mirari Alberdi, Mariipi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:

Miguel Angel Elkorobereibar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodríguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:

Juan Martin Elexpuru, Josu Okina,
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia: Gertu Koop.

Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Ana Julia Irigoien;
Udal Artxiboak lagatakoa.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.

Lege gordailua: SS 50/91.

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaureritzako
Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g. 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

"ERTZAINAK" BERGARAN

Orain dela bi aste komunikabideetan ikusi ahal izan genuen Bergaran "Ertzainak" telesaila grabatu behar dutela, honek Ertzantzaren irudi faltsu faltsua eman dezakeelarik, umoretsua den telesail honetan ez baitugu uste Ertzantzaren izaera eta jokaera errepresiboa agerian geldituko denik. Guztiok dakigu Ertzantzaren eskuetan jendeak pairatu dituen tortura, tratu

txar, isolamenduak e.a. Ertzantza polizia politikoa dela argi geratu delarik.

Beraien burua "polizia modernotzat" jotzen duten polizia hauek Gasteizko gobernutik zuzenduak izan dira. Gobernu honek Europako presupuesto handiena duen polizia dauka. Hala ere, honek ez ditu herriaren hizkuntza nahiz eskubideak bermatzen, hizkuntza bortxatu eta hainbat herritarren eskubideak zapaldu baizik.

Polizia honek Arabiar Zerbitzu Sekretuekin dituen harremanak aski ezagunak dira, "beltzek" Alemanian izaten dituzten entrenamenduekin eta teknologia aurreratuekin zer lortu nahi du polizia honek? Hau dena ikusiko al dugu telesail honetan?

"Ertzantza policia zein aldia?! Indar okupatzaileak kanpora! Alde hemendiki!"

Bergarako Jarm

GIDA 99

Gogorarazi nahi dizuegu etxean gidarik jaso ez duzenoi, nahi baduzue BERRIGARAKO erredakzioan, Kultur Etxean, daukagula azken ale batzuk.

Horretaz gain, datorren urteko gidarako norbaitek zeozer zuzendu nahi badu, deitu dezala BERRIGARARA (943 76 03 97).


Berrigara

tira biraka: alex ugalde

Hiru hartz txikien
ipuin berria...



Egunero
morokila



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Bake prozesua bide onetik doiala uste dozu?



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.



Mari Carmen Salazar

Nik neuk ez dut asko ulertzen baina bide onetik doiala uste dut. Zerbait lortuko delakoan nago. Horretarako, denok pazientzia puskat izan behar dugu.



Jose Antonio Gonzalez

Nahasmen handia dago. Guztiek liderrak izan nahi dute. Epe luzera dena konpontzen da baina momentuz ez dut konponbiderik ikusten. Talde lana falta da.



Mertxe Martinez

Bakerako lan egitea primeran ikusten dut eta biolentzia ez izateak poztzen nau. Bestalde, jendea pozik izan dadin presoak gerturatu beharko lirateke.



Pilar Gallastegi

Gauzak ez dittue argitzen ez alde batetik eta ez bestetik. Gauzia geldu ikusten dot. Politikuak izkutuan lan agituen dabe eta gero argituko dala uste dot.



Marcial Gonzalez

Oso poliki doa. Demokrazia batean gaude eta dagoneko armak utzita egon beharko lirateke. Bakoitzak bere aldera egiten du. Gauzak berdin jarraitzen dute.



Manolo Garces

Oso poliki. Nazionalistak ez diren alderdien aldetik gogo gutxi ikusten dut. Ez da ezer aurreratu. Jendeak ilusio handia du baina estatuari ez zaio interesatzen.

LEHEN ESTU ETA ORAIN ESTUAGO

Juli Martinezek deitu digu aste honetan BERRIGARARA Bergaran, erdialdean, kotxea aparkatzeko dauden arazoak direla eta. Julik dio, arazo hori aspaldiko kontua izanda ere, aste honetan areagotu egin dela, autoa egunero erabili behar dutenentzat itomena sortuko duten obrak hasi baitira: Irala zineko etxeak. Izan ere, lanon ondorioz Kruz Gallastegi kalean lehen baino auto gutxiagorendako lekua dago. Non utzi kotxea errekaduak egiten ari denak? Non utzi kotxea laneko joan-etorrietan dabilenak? Non utzi kotxea garajerik ez duenak? Juliren ustez, Udalak soluziobidea eman beharko lioke arazo honi, baina... oraintxe bertan!

■ ikuspuntua: **maria urzelai**

Plastilinazko berdintasuna

Oraindik bada arrazoirik Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen jarraitzeko, bai, emakumeok zeresan ugari daukagulako. Eta topikoari heltzearen hutsa beteko dut hau esatean, baina urteko egun guztiek izan beharko lukete. Hala ere, martxoaren 8a da komunikabideen kontzientzia loalditik esnarratzen duen egun bakarretariko bat eta esnarratzen dizkiguten baliabideak aprobetxatu behar ditugu ehuneko-ehunean.



Eta zeresanik edukitzearena plastilinazko, jostailuzko berdintasunean itotza bitizteagatik da. Ez baita benetazko paretokotasuna gaur egungoa, legearen aurrekoa baizik. Hau da, ez-plastilinazko etxeetan, egiazkoetan, askok makilkada izugarriak jasaten dituzte, auskalo ze istorioren aitzakipean. Beste askok, kanpoan lanean hamar ordutik gora egon ondoren, umeen ipurdiak garbitu, eta izterrak depilatu beharra izaten dute. Beste horrenbestek, langabeziaren arazoa pairatu beharra dau-

kate edo prekarietatean lan egin edota ekonomia murgilduan aritu beharra daukate Fallopioren tronpadun jaio izanagatik.

Nola arraio egongo da benetazko berdintasuna ezagutzen ditugun eredu politiko-sozial-erlijioso gehienak gizonetzkoek ezarriak badira? Guri txoko bat eskaini baino ez digute egin, lau pisutako txalet dotore bateko logela ilun bat baino ez digute eskaini.

Eredu inposaketa guztion aurrean, badugu zeresan, emakumeok nahi duguna sentitu dezakegulako, nahi duguna esan eta egin eta, bereziki, nahi duguna izan gaitezkeelako; akrobatik, porno-izarrak edo fisikariak. Baina beti ere nahi duguna. **B**

■ asteko menua: **iraho jatetxea**

Txahal tripakiak



MARIA LUISA LETURIONDO
Irabo jatetxeko sukaldaria

OSAGAIK (4 lagunentzat)

- 2 kilo txahal tripaki
- Pare bat belauneko hezur (txahalarena)
- 3 tomate ale
- 2 porru
- 2 kipula
- 2 azenario
- 4 berakatz ale
- 4 piper txorizero lehor
- Pipermin apur bat

PRESTAKETA

- Lapiko handi batean tripakiak, hezurra eta barazkiak egosten jarri.
- Tripakiak bigundutakoan, barazkiak atera eta txinotik pasatu.
- Saltsa loditzeko, ontzi batean su motelean ipini.
- Saltsa ondo egina dagoenean, tripakiekin batera ipini eta sutan apur bat eduki.
- Eta mahaira ateratzeko prest.

■ adituen esanetan

Produktu transgenikoak

ALBERTO ALTUBE, *dietista*

Produktu transgenikoak landarearen kodigo genetikoari beste gen bat nahastuz lortzen dira. Gen hori hozizelulan sartzen da eta zelula hori laborategian ugaltzen da. Laborantza garaian, genetikoki aldatutako landareak lortuko dira. Industria kimikoaren ondorio izanik, hainbat multinazionalen (Novartis, Monsanto, Roundup) interes ekonomiko handiak daude produktu hauen atzean. Zientzia industriaren interesen alde jarri da kasu honetan. Multinazionalak gaisotasunik ez jasateko landare iraunkorrak eta produkzio handiagoak lortzen direla esaten dute baina azkenean beraien produktuak

(herbizidak, haziak...etab.) erostera behartzen dituzte baserriarrak. Eta produktu hauek landatuz gero, ez dago alboan gauza naturalik izateko aukera.

Kontsumitzaileei begira, berriz, ez jakintasun handia dago gai honen inguruan. Inolako araudirik gabe produktu hauek komertzializatzen hasi dira (farmazietan, umeen elikagaietan, ogian..., etab.) eta ez dakigu nolako ondorioak ekarriko dituzten. Badakigu, adibidez, antibiotikoen eragina gutxitzen dutela. Gaur egun zer jaten dugun ere ez dakigu eta produktuen etiketan gutxienez informazio egokia jasotea beharrezkoa ikusten dut. **B**

■ bergarako gordailutik

AGINTE ON BATERAKO ARAUDIA III

Imanol Sorondo

Mirugarren idazkia duzu hau gai berari buruz. Baina oraingo honek merezi du azaltzea, gure herria ondo zuzentzeari dagokion araudiez oso zaharra delako, 1591. urtekoa, hain zuzen.

Nahiz eta arau hauen eta aurreko bi idatzitakoaren artean ia 200 urte egon, aginduak berdin samarrak direla aitortu behar; zuztarrean galera zi behar zirenak ez ziren hainbeste aldatu, nonbait; dena dela, azpimarratzeko kontua da.

Ipini dezagun adostasun handia dagoela lehenengo eta oraingo gai hauetan; birao eta juramentuetan; ehiza, jokatzailerak eta arma kontuetan; auzoetako bide, garraioetako mandozain, burnizko pisu, eta besteren baratzetan sartzekoetan. Desberdintasun gutxi dira: ehizarekin batera, agindu zaharretan arrantzaren modu batzuk ere galerazita daude; gainera, ez dituzte txerriak kalean eta besteren baratzetan aske utzi behar; jai egunetan eta, batez ere Amabirjinairetan, gehiegikeriak izaten dira jan-edanetan eta jolasetan, Jainkoaren aginduen eta zerbitzuaren aurka; bestelakoak izan behar lituzkete, elizkizunetara joanez eta Jainkoaren zerbitzuari dagozkion ekintza onak eginez. Ikusi daitenkeenez, Gabiriatar Kristobal Lopez alkate jauna kristau kulturaren eta erlijioaren oinarritzen da herria zuzenbideratzeko eta araudia egiteko. Beste alde batetik, elizetako apaizei eman die herriari jakinarazteko lana. San Pedroko apaiz maisua Oxirondotar Juan da; igandeko meza nagusian, jende askoren aurrean, erdaraz eta euskaraz irakurri du; dirudienek, irakurri ez ezik, gaiaren mamia ere argitu du; horrela izenpetu dute behintzat, entzuleen arteko hiru lekukok; gero, egindako dena zuzen zuzen idatzi du eta, izenpetu ondoren, alkate jaunari bidali dio. **B**



Zenbakien prestidigitadorea

Jaime Garcia Serrano kolonbiarrak txundituta utzi zituen. **Ipintza institutuko ikasleak** astelehenean. Goiz eta arratsaldean antolatutako saioetan, Jaime Garcia kalkuluak buruz egiteko teknikak azaldu zizkien Ipintzako batxilergo eta DBHko ikasleei. Matematikako ariketak egiteko sekulako erreztasuna eta elefante baten pareko oroimena erakutsi zuen kolonbiarrak eta ikasleek, kalkuladoraren laguntzaz, primeran pasatu zuten berak proposatutako jolasekin. Ea astelehenean ikasitakoa azterketetarako baliogarria gertatzen zaien...

"Mendirik mendi"

Euskal Mendi Federazioaren 75. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien artean, **"Goazen mendirik mendi"** izenburupean eta Euskal Herriko mendizaleak elkar ezagutzeko helburuarekin, mendi irteera egiten ari dira Iparraldea, Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako mendietan zehar. Bizkaiko talde bat ordezkatzuz, Pol-Pol eta Gorla Alpinoko kideek martxa borien testigua jaso zuten otsailaren 14an **Ernio**n, Iruñeako

Donibane taldekoen eskutik (argazkian **Roberto Aranzabal** makila jasotzen **Maria Angeles Liaño** rengandik). Domeka honetan (bilak 7), Iparraldeko **Auñamendi** taldeak bergararrei testigua pasako die berriz ere **Mendaurre**n eta martxoaren 14an, bergararrek Iruñeako **Amaia** taldekoei pasako diete testigua Udalaizten. "Goazen mendirik mendi" ekimenari maiztazaren 23an emango zaio bukaera Elgetan.



ARGAZKIAK: ANDONI LARRANAGA

Korrika Kulturala martxan

Joan zen eguakitzean, 35 lagun inguru izan ziren **Korrika Kulturalako programazioaren** barruan Infernukua tabernan egindako ipuin afarian. Giro ezinhobean afaldu ondoren, **Oihulari Klowneko** kideek eta **Amaia eta Jokin** bertsolariek ipuinak eta bertsoak tarkekatu zituzten, bildutako gozamenerako. Korrika Kulturalako programazioarekin jarraituz, eguenean, hilak 11, **Luis Alberdiren** eskutik **"Sexualitateaz jardunean"** izenburuko mahai-ingurua izango da Arrano tabernan 21:30etan.



NORRA PALMITANO

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko al baitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGOA Sabina (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GORRIBEL SABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S.** Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57 ■ **DERMATOLOGOA: GARCIANDIA Cristina.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miriam (Reeducacion Postural Global)** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAGORRI AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Iruñe.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber.** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA: IGARTUA Julian.** Barrenkalea 35, 1-ekerra. 943 76 70 91 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 1. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotritzitatea).** 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa).** 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa).** 943 76 30 76 ■ **REUMATOLOGIA: MORAGUES Carmen.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39



Jena AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen aldizkaria.

5. zenbakia. 1999ko martxo.

Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Txos Azurmendi.

Tirada: 11.500 ale.

Berrigara

Arrasate
PRESS

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30

Peugeot 406 ST DT			IZ, KE, AG, LD, ABS	Interesgarria
Peugeot 306 Graffit 1.4			IZ, KE, AG, LD, 5 ate	Interesgarria
Peugeot 106 XS 1.6			IZ, KE, LD, 3 ate	Interesgarria
Peugeot 106 Sketch 1.1			IZ, KE, AG, LD, 5 ate	Interesgarria
Peugeot 106 Sketch 1.1			IZ, KE, AG, LD, 3 ate	Interesgarria
Peugeot 205 D			IZ, KE, AG, LD, 5 ate	Interesgarria
Peugeot 206 D			IZ, KE, LD, 3 ate	Interesgarria

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43

Audi 80 1.8 iE	SS-AB	1988	LD, KE, IZ	*3
Renault Supercinco GTX	SS-AB	1988	IZ, KE, AH	*2
Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	LD, IZ, KE, AH	*3
Ford Orion 1.6 i	SS-AB	1988	IZ, KE, LD	*1
Ford Sierra Sport	BI-AZ	1989	IZ, LD, KE, Sapaia	*2
Ford Escort RS Turbo	SS-AJ	1990	LD, KE, IZ, AH	*3

ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49

Land Rover Discovery TDI	SS-AZ	1994	AG, AH, 2 sapaia, ...	Interesgarria
Peugeot 205 D	SS-AF	1989	LD, IZ, KE	Interesgarria
Peugeot 205 D	SS-AJ	1990		Interesgarria
Ford Mondeo 2.0 16V	SS-AP	1993	AG, ABS, AH, ...	Interesgarria
Renault Express D	SS-AC	1988		Interesgarria
Peugeot 205 D	SS-AJ	1990	5 ate	Interesgarria

KANPAZAR TAILERRAK. Bizkaia etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 41 98

Fiat Tempra 1.6 SX Suite	SS-AM	1992	KL, AH, IK, IZ, KE, LD	Kontsultatu
Fiat Uno 45	SS-AF	1989	IK, 5 ate	Kontsultatu
Fiat Uno D	SS-AF	1989	IK, 3 ate	Kontsultatu
Fiat Uno 45	SS-Z	1987	IK, 5 ate	Kontsultatu
Opel Corsa	SS-AM	1992	IK, 3 ate	Kontsultatu
Fiat Punto 55 S			IK, Pintura metalizat. 3 ate	Kontsultatu

AG: Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagnak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
HT: Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoak
KL: Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapaia elektrikoak


*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTAtik aurrera

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
 Tf. 943 76 13 84



Garraioaren mundua

LAGUN GARAJEA


Javier Gallastegi Arenaza

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

ORAIN HELBIDE BERRIA!

Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20



AGUSTIN

Automobilaren
 karburazio eta
 elektronika



Uribarri etorbidea 16.
 Arrasate. 943 79 73 58

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

MARKIEGI AUTOAK. San Lorenzo z/g. Bergara. Tf. 943 76 35 09

Fiat Tempra		1992	Oso egoera onean	*3
-------------	--	------	------------------	----

MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 79 07 44

Nissan Patrol GR-TDI 4x4		1994	Full Equiped	*
Opel Frontera TDI 4x4		1992	Full Equiped	*
Ford Mondeo TDI Luxus		1994	Full Equiped	*
Ford Escort RS 2000I 150 CV		1992	Full Equiped	*
Ford Mondeo TDI GLX		1997	Full Equiped	*
Hyundai Cupe 1.6i		1998	Full Equiped	*

* 40 auto baino gehiago 200.000 eta 3.000.000 pezeta artean. Zatoz ikustera!

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74

Opel Vectra TDI 2.0	M-VZ	1998	Full Equiped	Negoziatzeko
Opel Astra 1.7 TD	SS-AU	1995	IK, KE, IZ, 5 ate	Negoziatzeko
Opel Kadett 1.8 GT	SS-AB	1989	AH, IK, AH, IZ	Negoziatzeko
Citroen Saxo 1.5 D	SS-AZ	1998	KE, IZ, IK, LD	Negoziatzeko
Peugeot 205	SS-Z	1988		Negoziatzeko
Opel Corsa 1.7 D	SS-BB	1998	KE, IZ, LD, IK, AH, Aleroria, 3 ate	1.375.000

SEAT UDALAITZ. Musakola z/g. Arrasate. Tf. 943 79 18 80

Opel Vectra 2.0	Z-AT			*4
Ford Sierra 2.0	SS-AH			*3
Audi 90 2.3 Quattro	SS-AS			*4
Fiat Uno 7.0 SX	SS-AH			*2
Opel Omega 2.0	SS-AD			*2
VW Golf 1.4 CL	SS-AZ			*3
VW Passat Syncro G-60	SS-AN			*4
Ford Escort Mohade 1.8 D	SS-AL			*3
Seat Toledo GLX TD	SS-AN			*4
VW Golf D	BI-BS			*5

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak
 HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Ibxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gupiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTAik aurrera

JASO GARAJEA

Autoen konponketa orokorra

Amillaga 1, 4 pabilioia.
Bergara. Tf. 943 76 33 00

PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g. Tf. 943 79 99 61 • ARRASATE

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!

Txorno
Auto-errekabioak
Ibargarai 33, beheka. BERGARA
943 76 29 95

35.000 IRAKURLE

Berrigara Arrasate

Dena AUTO

2. ESKUKO
AUTOMOBILEN GIDA

Deba Garaiko auto saltzaileok! Aukeran dituzuen erabilitako kotxeen eskaintza, **Bergara, Antzuola eta Arrasateko ia etxe guztietara** helduko da. **35.000 irakurle** inguruk izango dute Dena Autoren berri.

Dena Auto, Deba Garaiko 2. eskuko automobilen gida, berriz ere zuekin, 1999an **eskaintza berrieekin** dator.

Aurten 6 zenbaki argitaratuko ditugu

Berrigara eta Arrasate Press astekarietan, honako egun hauetan:

Martxoak 5

Apirilak 23

Ekainak 4

Uztailak 9

Urriak 15

Azaroak 26

Uztailaren 9koa berezia izango da. San Kristobal dela eta, motorrari buruzko berezia egingo dugu, gaiaren inguruko **artikuloekin** eta publizitatearekin.

1999rako eskaintza berezia egin nahi dizuegu. Lerroaren eta publizitate moduloaren prezioa hauexek izango dira:

LERROA: 1.300 PTA

PUBLIZITATE MODULOA: 3.000 PTA

Sei egin eta bost ordaindu:

Bost lerro kontratatzen badituzu, seigarrena doan jarriko dizugu. Eta urte osorako publizitatea kontratatuz gero, hau da, sei inserzio eginez gero (edozein modulaje), bost bakarrik kobratuko dizugu.

Kontratazioa

Nerea Lazpiur

ARRASATE PRESS

Otalora kalea 31
20500 Arrasate.
Gipuzkoa

Telefonoak:

943 76 03 97

943 71 25 11


Faxak:

943 76 29 77

943 71 23 95

BERRIGARA

Errotalde jauregia z/g
20570 Bergara.
Gipuzkoa



Minusbaliatuak lan munduan

Bergarako Gureak tailerreen 20 lagun ari dira

Gureak taldeak "Cruz de Plata de la Orden Civil de la Solidaridad Social" delakoa jaso berri du, 1975. urtetik hona minusbaliatuen integrazio sozialaren alde egindako lanagatik. Gipuzkoan Gureak taldeak 15 tailer ditu eta, Donostiakoarekin batera, Bergarakoa da tailerrik beteranoena. Gaur egun 20 lagun ari dira lanean Seminarioko baxuetako tailerreen.

Guraso talde batek bultzatuta, 1970eko ha-

markadaren hasieran, San Migel Patronatoa, atzeratuei zuzendutako eskola zabaldu zen Zabalotegin. Garai hartan 50 ikasle inguru jaso zituen eskolak. Ondoren, adinean aurrera zihoazen ikasleei irtenbide bat topatu nahian eta lan munduan lehen urratsak eman zi-

tzaten, premia horri erantzuteko tailer bat zabaldu zen dominikoez Seminarioko baxuetan lagatako lokalean. Garai hartan "Asociacion Guipuzcoana pro-subnormales" zenak jestionatzen zuen tailerra eta handik gutxira, 1975ean, Gureak taldea sortu zen. Do-

nostia eta Bergarakoa izan ziren taldeko lehendabiziko tailerrak.

Ordutik hona taldea haziz joan da eta gaur egun 15 tailer biltzen dira Gureak taldean: Bergarakoaz gain, Donostia inguruan lau tailer dira eta, Arrasaten, Eibarren, Legazpian, Azkoitian, Ordizian, Tolosan, Orion, Oiartzunen, Irunen eta Lasarten Gureak-eko tailer bana dago.



2.000 LANGILE GIPUZKOAN

Gure probintzian 2.000 minusbaliatu psikiko ari dira Gureak-eko tailerretan lanean eta esan behar da Gipuzkoa dela babes-tutako lanpostuen portzentaiarik handiena duen probintzia Estatu mailan. Aipatutako tailerrez gain, Gureak taldeak lorazaintza edota zuzeneko publizitatean lanean ari diren filialak ere baditu eta kasu batzuetan gutxitu fisikoak ere kontratatu behar izan ditu lan konkretu batzuetarako. Piskanaka-piskanaka buruko gaitzak dituztenak ere Gureak tailerretan integratzen hasteko asmoa dago, nahiz eta Bergarako tailerretan oraingoz minusbaliatu psikikoe-kin bakarrik lanean jarraituko duten. Gureak taldearen helburu nagusia minusbaliatuak hezitu eta erreabilitatzea da, gizartean eta lan munduan integratzea lortzeko asmoz.

LOKAL ZAHARRA

Esan bezala, Bergarako tailerra aitzindarietako bat izan genuen minusbaliatuen laneko integratze programak martxan jartzeko orduan. Oraindik ere Seminarioko lokal zaharretan jarraitzen dute lanean, taldeko zuzendaritzak beste kokaleku egokiago bat topatzen dieten bitartean. Lokal txikia da eta ez du apenas aldaketarik izan orain dela 26 urte inguru martxan jarri zenetik. Bergarako tailerreko arduradunek ere

Donostiarekin batera, Bergara herri aitzindarietako bat izan genuen minusbaliatuen laneko integratze programak martxan jartzeko orduan

behar-beharrezkotzat jotzen dute lokalez aldatzea. Duela urte batzuk Arrasate eta Bergarako tailerrek Arrasateko egoitzan bat egiteko aukera aztertu zen baina Udala eta langileen familiak horren kontra azaldu ziren. Bergarako tailerra herrian mantentzeko borrokatu zuten eta orain lokal txkunago bat lortzea da lehenadabiziko helburua. Labe-garaietan izango den Industrialdera eramateko interesa azaldu du Gureak taldeak baina oraingoz horren inguruan ez dago ezer baieztatuta.

ZORTZI ORDUZ LANEAN

Lokal zaharrena izateaz gain, Bergarako da lokalik txikiena langile kopurua kontutan hartuta. Gaur egun, tailerreko arduradunen esanetara, 20 langile ari dira bertan lanean (tokirik ez dago gehiago sartzeko) eta Arrasaten, esaterako, 105 langile dituzte, hainbat bergarar tartean. Arrasate-

ko tailerra askoz berriagoa da, duela 9 urte jarri baitzen martxan. Azkenengo bi urteetan 300 langile hasi dira Gureak taldeko enpresetan lanean eta eskakizun berriak Diputazioko Zerbitzu Sozialen departamentutik jestionatzen dira. Diputazioak, urtero, 500 milioi pezeta bideratzen ditu minusbaliatu psikikoen integratze programak. Bergarako tailerretan, 15 bergarar, Antzuolako bi lagun, Soraluzeko bat eta Elgetako beste bik egiten dute lan. Langileen artean bada bereizketarik: lan kontratua dutenak (bost lagun besterik ez) eta tailerra zentro okupazional modura erabiltzen dutenak (gainontzeko hamabostak), nahiz eta hauek ere soldatatzeko bat jaso. Lan kontratua dutenek orduerdi gehiago egiten dute lan, 8:15etatik 17:15ak arte. Eguerdiko ordubatean tailer ondoko jangelan bazkaltzeko tartea egiten dute. Jangelako sukaldaria bajan dagoenez, azkenaldian Auzolagun enpresak gertatzen die bazkaria. Inguru-ko enpresetarako egiten dute lan. Goizper, Mayc, Fagor, Lacor eta Rodisa

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

Gaur egun 20 langile ari dira Bergarako Gureakeko tailerlean. Ezkerreko argazkian Mari Karmen Zubia eta behekoan Bernardo Nuñez bere lankideekin.

enpresetarako hain zuzen ere. Aipatutako lantegietarako osagaiak egiten dira Seminarioko tailerlean eta, arduradunen arabera, enpresa hauen lankidetzak eskertzekoa da, oso ondo portatzen baitira beraiekin.

LANGILE FINAK

Langileak finak direla dio te tailerreko arduradunek; "gustora etortzen dira lanera eta kasu gehienetan lan mekanikoa da egin behar izaten dutena, konplikaziorik gabeko lana. Baina lana primeran datorkie; orduz jakin batera moldatu behar di-



aldatzen dira, lanean has-tean helduagoak bilakatzeko direla esango nuke, azken batean beste erantzukizun batzuk hartzen dituztelako".

Mari Karmen Zubiak 10 urte daramatza Gureak-en lanean eta berak dioskunez pozik joaten da egunero tailerrera. Errodamenduak sartzeko erabiliko diren kartoizko

kaxak enkolatu eta plastikozko zinta jartzen die; "lanean gustora nago eta giro ona dago tailerlean. Ez da lan nekeza egiten dudana eta ondo pasatzen dut". Mari Karmen bakarrik bizi da eta ondo moldatzen dela esan digu. Aisialdian Txolarte taldeak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzea gustatzen zaio. Gorka Rementeria Panticosara eskia-tzera joango da astebukaera honetan Txolarterekin. Tailerlean, berriz, era askotako lanak betetzen ditu Gorkak eta dagoeneko zortzi urte eman ditu Gureaken; "lanetik irteerako normalean etxera joaten naiz, kafetxoren bat hartzen geratzen ez banaiz behintzat... Gimnasiara ere astean bi bider joaten naiz". Bernardo Nuñez 23 urteko gaztea tailerlean lanean hasitako azkenetako da; "Elementatik etorri nintzen hona eta aurtengo hau nire lehendabiziko urtea da. Lankideekin ondo konpontzen naiz eta ez zait gogorra egiten tailerlean egunero zortzi ordu ematea. Arduraduna gurekin haserretzen den? Ez, oso gutxitan, formalak gara". **13**


Oraindik ere Seminarioko lokal zaharrea lanean jarraitzen dute, Gureakeko zuzendaritzak beste kokaleku egokiago bat topatzen dieten bitartean

ra eta disziplinaz egiten dute lan. Azken batean, Gureakeko tailerrek beste edozein enpresatako funtzionamendu bera izatea lortzea da helburuetako bat. Langile bakoitzak bere erritmora egiten du lan baina langile finak dira kasu gehienetan. Bestalde, eskola laga eta tailerlean lanean hasten direnean asko

Gureak taldea sortu baino lehen Seminarioko tailerra jarri zen martxan. Ezkerreko argazkia 1974koa da.



GURIA
Taberna
 Bidekurutzeta 5
 ☎ 943 76 20 34



Manufacturas LARRAÑAGA

Lan-babeserako artikulak, lan-prebentzio eta seinaleztapena, lanerako jantzigintza

Leizeaga 1. Tf. eta faxa 943 76 59 53.
 Posta kutxa 140. 20570 BERGARA (Gipuzkoa)



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Patatus-Amilotz

10:00: Bayer-Ezinleike

Bayer

Patatus

ZAPATUAN KANPOAN

11:00: K. Piperrak-Matxakategi

12:00: Ion Autoak-Buya

16:00: Guadalest-Usoa

17:00: Etengabe-Agirrebeña

18:00: Pinturas Bergara-La Juve

Ion Autoak

Matxakat.

Etengabe

P. Bergara

Agirrebeña

DOMEKAN BARRUAN

09:00: Txipiron-Tom Cat Argandolas

16:00: A Ze Flaxa Etxagi-Bildurbarek

17:00: Xurruapak-Sirimiri Eri

18:00: Fac-Uve Bikoitza

19:00: Arbe Kirolak-Artusamak

20:00: Igandekoak-Amozkibar

Jakina PT

Xurruapak

U. Bikoitza

Arbe

Igandekoak

Artusamak

DOMEKAN KANPOAN

10:00: Patxaran Team-Irubide

11:00: Ari Ari-Urrutxurtu

12:00: Agiñaspi-SLP

13:00: Moskis-Ufala

Ari Ari

Agiñaspi

Moskis

SLP

argi!

Bildurbarek Opel/Lam

Bildurbarek Opel/Lam taldeari 3 puntu kendu dizkio Antolaketa Batzordeak partidua jokatzera ez agertzeagatik. Beraz, Shaktale taldearen kontrako partidua 3-0 galdutzat eman diote antolatzaileek. Horrela, Bildurbarek taldea 15 punturekin dago, zortzigarren postuan.

jokoz kanpo



MIKEL GUTIERREZ
Usoa

G. Zer moduz zaudete 2. mailan?

E. Eskas. Maila handiko taldeak daude. Hirugarren mailan jokatu bagenu gustorago ibiliko ginatete.

G. Taldeko jokalaririk aipagarriena?

E. Andoni Aguayo eta Piti Arriola.

G. Zenbat urte txapelketan?

E. Bost bat. Azken bi urte hauek Usoarekin eta beste hiru Altzari taldearekin.

G. Urte hauetan antolaketa maila aldatu egin da?

E. Ez dut uste. Hori bai, gero eta arau gehiago daude eta ez ditut beharrezkoak ikusten.

G. Taldea puntuatu 1etik 10era.

E. -3.

G. Non jokutzen duzu?

E. Erdian. Entrenatzaileak agintzen didan tokian. Mireia Gallastegi dugu entrenatzaile lanetan.

G. Zenbat zaudete taldean?

E. 11. Baina 6 eta 7 agertzen gara jokatzera. Betikoak.

G. Zer iruditzen zaizu Toshacken itzulera?

E. Zerbait egitekotan, jokalaria aldatu beharko dituzte.

G. Zin ezin da tokatu zaizuen talderik zailena?

E. Bayer eta Artusamak.

gora eta behera



Guadalest

Azken jardunaldian, Guadalest taldeak hirugarren postuan sailkatuta dagoen Artusamak taldeari 0-3 irabazi zion. Ondorioz, Guadalestek postu bat igo du eta Artusamakek sailkapenean gora behera, rik igarri ez duen arren, puntutan Xurruapak eta Arbe kirolak taldeekin parekatuta da. Bestalde, Pinturas Bergara taldeak Amilotz taldeari 9 gol egitea lortu zuen. FACek Tom Cat Argandolasen kontrako partiduan bezala.



Punturik gabe

Erdialdetik gora egon arren, azken jardunaldian Errotagain, Artusamak, Xurruapak eta Sirimiri Eri taldeek ez zuten puntu bakarra ere lortu. Talde hauek, lehen eta bigarren mailan dabilzanak dira.

emaitzak

Xurruapak-Bayer	1-4
Agirrebeña Jatetxea-Komando Piperrak	5-5
Pagomendi-Jauja OH Zerezos	1-1
Tom Cat Argandolas-Fac	2-9
Sirimiri Eri-Arbe Kirolak	3-4
La Juve-Agiñaspi	3-4
Irubide Jatetxea-Etengabe	6-1
Amilotz-Pinturas Bergara	5-4
Errotagain-Azpeltxi Jatetxea	0-3
Bar Canalejas-A Ze Flaxa Etxagi	4-5
Shaktale-Bildurbarek Opel/Lam	3-4
Artusamak-Guadalest	0-3
Urrutxurtu-Jakina Patxaran Team	3-3
Usoa-Txipiron	5-4

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Azpeitxi Jatetxea	34	16
2. Errotagain	29	15
3. A Ze Flaxa Etxagi	26	14
4. Pagomendi	24	16
5. Orzi	23	15
6. Bar Canalejas	20	16
7. Mongatxurak	17	15
8. Bildurbarek Opel/Lam	15	14
9. Jauja OH Zerezos	13	16
10. Shaktale	13	16

2. maila

	P	J
1. Bayer	19	7
2. FAC	18	8
3. Artusamak	14	7
4. Xurruapak	14	8
5. Arbe Kirolak	14	8
6. Sirimiri Eri	11	7
7. Ezinleike	9	8
8. Tom Cat Argandolas	8	8
9. Guadalest	6	8
10. Uve Bikoitza	4	6
11. Usoa	3	8
12. Txipiron	2	7

3. maila

	P	J
1. Urrutxurtu	17	7
2. Moskis	16	7
3. Ufala	16	7
4. Ari Ari	13	7
5. Jakina Patxaran Team	13	7
6. Irubide Jatetxea	13	7
7. Agirrebeña Jatetxea	11	7
8. Komando Piperrak	5	8
9. Matxakategi	4	7
10. Etengabe	3	7
11. HHH	3	8

4. maila

	P	J
1. Amozkibar	16	7
2. Mo(ko)lotov	15	8
3. Agiñaspi	13	6
4. Patatus	9	7
5. Buya	9	6
6. SLP	9	7
7. Ion Autoak	8	8
8. Pinturas Bergara	8	7
9. Amilotz	6	7
10. Igandekoak	6	8
11. La Juve	5	8

kronikak


**Futbola
Almeni
7 gol
kadeteek**

Lehen mailako kadete taldeak sekulako jipoia eman zion joan zen asteburuan Almen taldeari. Bergarak 7-0 irabazi zien Eskoriatzakoei. Lehendabiziko zatiaren batez ere, Jose Mari Juaristiren mutilek joko paregabea egin zuten eta etorri ziren golak ere ez ziren nolanahikoak izan.

Partiduko sei gol, lehen zatian egin zituzten. Golegilpe nagusia, Iban Unanue izan zen. Unanuek sei gol egitea lortu zuen. Bestalde, markagailuan zazpi gol izateaz Eneko Juaristi arduratu zen. Partidu bikaina izan zen bergar gazteek eskeini zutena. Taldeak behar den egonkortasuna bilatu du eta hori partiduetan ikusten da.


**Eskubaloia
Kadeteak,
ligako
gailurrerantz**

Kadete mailako mutilak garaile irten ziren joan zen asteburuan Hondarribiren kontra izandako partiduan. Edu Iñarraren aginduetara dagoen taldeak 23-17 irabazi zuen.

Hasierako minutuetan golak egitea zerbait kostatu bazitzairen ere, piskanaka piskanaka aurrera egin eta arazorik gabe markagailuan aurreratzea lortu zuten. Goleatzaile nagusia eta partiduan nabarmendu zen jokalaria Ander Landaburu izan zen. Bergararrak 2. daude sailkapenean eta asteburuan, sailkapenean aurretik doan Arrasateren kontrako partidua irabaziz gero lehen postua eskuratuko lukete eta, ziur aski, liga lehen postuan amaituko.


**Saskibaloia
Lau
garaipen
jarraian**

BKEko saskibaloia saileko jubenil neskek dagoeneko lau partidua jarraian irabazi dituzte. Joan zen asteburuko garaipena Santo Tomas Lizeoren kontra izan zen. David Urbinak zuzentzen duen taldeak 37-57 irabazi zien donostiarrei.

Partidu osoan zehar bergararrak aurretik izan ziren eta, beraz, ez zuten irabazteko inolako arazorik izan. Nabarmendu ziren jokariaren artean, Maite Usabiega (22 puntu lortu zituen) eta Olatz Laborda, hiru hiruko saskiratzea lortzeagatik. Une honetan Bergarakoak hirugarren postuan daude eta taldea bere osotasunean ari da, lesioak jota zeudena errekuperatuta baitaude.

ANE OLABIDE/ Futbito jokalaria
“Nesken artean futbolarekiko interesa dago”

Bihar zapatua, nesken futbito txapelketa hasiko da. Dagoeneko laugarren urtez, futbola gustoko duten neskek martxo eta maiatza bitartean txapelketan aritzeko aukera izango dute. Aurretan, antolatzaile lanetan, lau urte futbiton ibilia den Ane Olabide izan dugu.

G. Bestetan ez bezala, aurten zuei tokatu zaizue txapelketa antolatzea.

E. Bai. Orain arte mutilak izan dira txapelketa antolatu dutenak. Aurten, Pope antolatzaile lanetan ibili zena federatutako taldea entrenatzen ari da eta gu arduratu behar izan gara.

G. Zenbat talde arituko dira?

E. Lau. Potzu ta Zapaburuak, Gu Geu eta Nifish iaz txapelketan ibili ziren. Aurten beste talde bat ere badugu.

G. Noiz jokatuko dira partidua?

E. BKEko emakumezkoen taldearen arabera. Txapelketako jokalaria asko BKEen ari dira eta ez da komeni txapelketako eta ligako partidua batera ipintzea.

G. Interesa gehitu edo gutxitu egin dela iruditzen zaizu?

E. Bergarako nesken artean futbolarekiko interesa dagoela usate dut. BKEen ari diren neskek 20 inguru dira. Bestalde, federatutako talde bat ere badago.

G. Zein taldetan arituko zara?

E. Potzu eta Zapaburuak.

G. Nondik dator izena?

E. Duela lau urte, taldean oso garaia zen jokalaria bat zegoen eta gainontzeko gehienak askoz ere txikiagoak zirenez ba... Potzu garaia zenagatik eta zapaburuak txikiagoak ziren guztienagatik.


KARTELDEGIA
FUTBOLA
Bergara-Beti Ona

Preferente maila
Zapatua. 16:30. Agorrosin

Bergara-Antzuola

Bigarren jubenil maila
Zapatua. 11:00. Ipintza

Bergara-Mariño

Bigarren kadete maila
Domeka. 11:30. Ipintza

Bergara-Elgoibar

Infantil maila
Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-Aloña Mendi

Neskak
Domeka. 15:30. Ipintza

ESKUBALOIA
Bergara-Zarautz

Jubenil mailako neskak
Zapatua. 16:00. Kiroldegia

Bergara-Arrasate

Jubenil mailako mutilak
Zapatua. 17:30. Kiroldegia

Bergara-Arrasate

Kadete mailako mutilak
Domeka. 10:00. Kiroldegia

Iraundi Bergara- Urrietako

Senior maila
Domeka. 11:30. Kiroldegia

SASKIBALOIA
Bergara-Eskoriatza K.E

Jubenil mailako neskak
Zapatua. 16:00. M. Lagundia

Bergara-Iruneko Lagunak

Kadete mailako mutilak
Domeka. 10:30. M. Lagundia

Bergara-S. Tomas Lizeoa

Jubenil mailako mutilak
Domeka. 12:15. M. Lagundia

PILOTA
FEDERAZIO TXAPELKETA
Bergara-Soraluze

Bigarren mailako kadeteak
Lehen mailako kadeteak

Bergara-Aretxabaleta

Junior maila

Bergara-Bearzana

Senior maila
Eguakitza. 19:30. Udal Pilotalekua.

DEBA ARROKO TXAPELKETA
Bergara-Eskoriatza

Kadete, jubenil eta senior mailak.
Martitzena. 19:30. Udal Pilotalekua.

ARETO FUTBOLA
Bergarako Lagunak
Altzakoak K.E

Neskak
Zapatua. 19:00. Kiroldegia

Lokatzak domekan emango dio hasiera aurtengo denboraldiari

Lau mailatan banatutako 23 txirrindulari izango dira

Joan zen asteburuan, Lokatza Txirrindulari Eskolak taldeen aurkezpena egin zuen eta domekan denboraldi ofizialari hasiera emango diote. Jubenilek Eibarrera gerturatuko dira eta kadeteak berriz Durangora. Guzti honi buruz, Miguel Angel Larrañagarekin hitz egin dugu.

Iaz bezala, Lokatzak lau mailatan jardungo du aurtengo; infantil mailan, lehen urteko kadeteetan, bigarren urteko kadeteetan eta jubenil mailan. Miguel Angel Larrañagak adierazi digunez, joan zen denboraldikoaren pareko lana egitea espero dute. "Ez dugu helburu finikorik. Eskola bezala egiten dugu lan eta, beraz, egiten den lana ez dago bakar bati begira, afizionatu eta profesionaletan egiten den bezala. Bakoitzak bere aukerak izan ditzan ahalegintzen gara. Laguntza ematen saiatzen gara. Lasterketaren bat irabaziko dugu beharbada, baina gure helburu nagusia ez da hori. Bestalde, jubenilek Gipuzkoako itzulia dute eta bertan talde-lana erakusteko asmoa dugu".

JUBENILAK

Migel Angel Lazpiur eta Iker Larrearen agindupean izango direnek, Lokatzako nagusienak izango dira. Txirrindulariek jubenil mailan ibili ondoren afizionatueta irabazteko aukera izaten dute, baina Lokatzak ez du afizio-



Jubenil maila.

natuetan inor izango. "Joan zen denboraldian jubeniletan amaitu zuten bi txirrindulari izan ziren, baina ez dute txirrindularitzan jarraitzeko asmorik. Egia esan, zaletasun handia behar da kirol honetan jarraitzeko".

Jubenilek, urtero Gipuzkoako itzulia jokatzen dute.

Bestalde, Nafarroan eta Errioxan ere izaten dira lasterketak, "baina bakar batzuk besterik ez dira joaten". Iaz Ander Agirrek Uzarragako igoera eta Peru Sa-

garnak Santa Marinako lasterketa irabazi zituzten. "Bi txirrindulari hauek oso denboraldi ona egin zuten. Aurrean ibili ziren denboraldi osoan".

BIGARREN URTEKO KADETEAK

Bigarren urteko kadeteak denboraldi osoan zehar aurre aldean ibili ziren. Hauek, Jon Ander Garitanoaren agindupean izango dira. "Egoitz Gabilondok lasterketa bat irabazi zuen joan zen denboraldian. Maila hauetan jardun zutenak lan ona egin zuten".

LEHEN URTEKO KADETEAK ETA INFANTILAK

Lehen urteko kadeteetan dauden gazteek lehendabiziko aldiz errepideetan en-



Bigarren urteko kadeteak.



Lehen urteko kadeteak.



Infantil maila.

trenatzeko aukera izaten dute. "Esperientzia hartzeko kilometro asko egin behar dira. Tropelean ibiltzeko gai badira, lan handia egin dutela esan nahi du. Aurreko denboraldian, ondo jarraitu zioten tropelari". Luis Miguel De Benito eta Miguel Angel Larrañaga dira arduradun nagusiak. Infantilei dagokienez, Jose Mari Gabildondo eta Xabier Uribesal-

gok izango dute gaztetxoeren erantzukizuna.

DENBORALDI AMAIERA

Maila bakoitzak bere egutegia dauka eta, beraz, denboraldi amaiera ere ezberdina izaten da. Lehen urteko kadeteen denboraldia San Martzialeko lasterketarekin amaituko da. Bigarren urtekoena uztaile bukaeran eta jubenilena irailean. **B**

ESKOLA KIROLA

Karteldegia

ARETO FUTBOLA

KADETE MAILAKO MUTILAK

18:00: La Salle F-M. Lagundia
Eguakitza, La Sallen (Eibar)

ATLETISMOA

BENJAMIN MAILA

09:30: M. Lagundia E, Aranzadi 5,
Aranzadi 6

10:30: San Martin B, M. Lagundia D,
Aranzadi 1

11:30: Aranzadi 2, M. Lagundia A,
Aranzadi 3, San Martin A

12:30: Antzuola A, Antzuola B,
Aranzadi 4, M. Lagundia B

Zapatuan, Agorrosinen.

*Euria egingo balu, frogak
bertan behera geldituko lirake.*

ESKUBALOIA

ALEBIN MAILAKO MUTILAK

10:15: Antzuola-Aranzadi 11

10:15: M. Lagundia B-San Martin

11:15: Aranzadi 10-Aranzadi 12

11:15: Elgeta-Aranzadi 8

11:15: M. Lagundia A-Aranzadi 9
(Atsedena, Aranzadi 13)

ALEBIN MAILAKO NESKAK

12:15: Aranzadi 14-Antzuola

12:15: Aranzadi 15-M. Lagundia
(Atsedena, Elgeta)

Guztiak zapatuan Aranzadi Ikastolan

INFANTIL MAILAKO MUTILAK

11:00: Aranzadi-Txantxiku

Zapatuan, Labegarietan

FUTBOLA

INFANTIL MAILAKO NESKAK

09:30: Aranzadi-Torrebaso

Zapatuan, Ipintzan

Rachel Olabarria Espainiako txapelketara

Rachel Olabarria

Euskadiko selekzioarekin Cadizen jokatu den Espainiako txapelketan izango da apirilaren 19tik 26ra. Bestalde, martxoaren 21ean Euskadiko selekzioko kadete mailarekin Zaragoruntz abiatuko da eta martxoaren 26, 27 eta 28an Euskadiko selekzioarekin ere bai, baina oraingoan jubenil mailarekin, Lloret del Maren izango da. Guztiak Espainiako txapelketako partiduak dira.

Mendi bizikleta irteera

Bergarako Txirrin-

dulari Elkarteak iganderrako mendi bizikleta irteera antolatuko du. Oraingoan Bergara, Antzuola, Trekutz, Gorla, Elosu-mendi, Pol-Pol, Osintxu eta Bergara izango da ibilbidea. Irteera goizeko 9:00etan izango da, Beheko Estazioan. Mendi Bizikleta irteeren bigarrez edizioa da. Otsailko irteeran 10 lagun inguru bildu ziren. Antolatzaileek adierazi dutenez, oraingoan, 15 inguru elkartzea espero dute antolatzaileek.


TABERNA-ERRETEGIA

Haragi eta
ehizakietan
berezitasuna
Sagardotegi
menua

EGUZKITZA

Aranerrek 30. Tf. 943 76 22 49.
Mugikorra: 639 28 65 56

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57

Irala 1

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

San Lorentzon pisua salgai. 943 76 21 63.

Osintxun pisua salgai. 939 93 68 41.

Pisu amueblatua Zubiaurren. 943 76 48 05.

Aranerrea. 943 76 06 52.

Bolun. 943 76 01 80.

Martoko. 943 76 55 86.

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

S. Lorentzo. 943 76 48 39.

Masterreka. 943 76 17 49.

Eleregí. 943 76 07 47.

Antzuola. 943 76 19 21.

ERRENTAN EMATEKO

Apartamendua Zarautzen (abuztuan izan ezik). 943 76 42 05

Laredo-plaian, Aste Santuan. Pizizinarekin. 943 76 13 86.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 85 36 99.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Artzamendin. 943 76 06 25.

Garajea salgai Ibargarain. 943 15 15 81.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Matzerreka. 945 23 48 07.

Aranerrea. 943 76 28 07.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 47 86.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Ibargarai. 943 76 72 17.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Ibargarain. 943 76 23 53.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

S. Lorentzo. 943 76 45 10.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Lokala S. Pedro kalean. 943 76 10 39.

Lau gelako lokala Koldo Eleizalden, bulegotarako. 943 76 58 91.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 / 76 37 80 (gauetz).

4. LANA

ESKAINZAK

Emakume batek etxeko lanak egin edota nagusiak zainduko litzuzke. 943 76 46 48.

Etxeko lanak edo haurren zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Aste).

Neskak, goizez, haurren zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Esperientziadun neska edadetuak zainduko litzuzke. 943 76 32 16.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Arratsaldean lan egingo nuke. 943 76 52 39 (Karme).

Erizain titulatuak gainak, edadetuak edo haurren zainduko litzuzke. 943 76 37 99.

Jai egunetan eta aste-bukaeretan tabernari lanak egingo litzuzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak etxeko edo sukaldari lanak egingo litzuzke.

ARREGUI, E.M.



AROSTEGIA

AROLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

**SUKALDERAKO
GARBITZAILEA**

eta

SUKALDARIA

behar dira

Tf. 943 76 41 06

**ESPERIENTZIADUN
ZERBITZARIA**

behar da jatetxean
lan egiteko

Tf. 610 38 48 96
(utzi mezua)

NESKA

behar da
jantokian
zerbitzeko

Tf. 943 76 20 29

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARARA

tuzke. 943 76 70 15.

Espenentziadun neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak egin-go lituzke. 943 76 72 31.

ESKAERAK

Pertsona edadetu bat zaindu eta etxeko lanetarako emakumea behar da. 943 76 39 61.

Neska behar da etxeko lanetarako, eguerdiz eta arratsaldeaz. 943 76 07 98.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

OHO eta BBB klaseak. Deitu 943 76 33 26 telefonora.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majistreritza diploma-tuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Ingenieritza diploma-tuak OHO eta BBBko klaseak ematen ditu. Deitu 943 76 70 44 telefonora.

Majistreritzako ikasleak OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Yamaha 250 cc. moto-rra, beltza eta kroma-tua. 943 76 28 92.

Citroen BX egoera one-an. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI kotxea salgai. 6 urte, egoera onean. 608 77 17 32.

Ford Orion 1.6 Ghia. Aire egokitua. Kilometro gutxirekin. 943 76 23 12.

Honda CR motorra salgai. 250 cc. 9 urte. 943 76 15 34 (Asier).

Ford Fiesta 1300 kotxea (SS-W) prezio onean salgai. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

7. ANIMALIAK

SALDU

Ardi txakurkumeak (arrak eta emeak). Deitu 943 81 56 20 telefonora.

Boxer txakurkumeak salgai. 943 76 40 73.

Hamsterkume indioak salgai. 943 76 43 70.

BESTELAKOAK

Bi artzai txakurkume opari. 943 76 35 58.

8. DENETARIK

SALDU

Opera eta kamara musika CD bildumak salgai. 943 76 58 05 (Juanje).

Altzariak salgai, berri-berriak. 619 80 26 06.

Bi oheko gazte logela. 943 78 25 85.

Ohe artikulatua. 90 zm.koa. 943 76 20 90.

Errepideko bizikleta (8-12 urtekoentzat). 943 76 72 17.

Teknigrafoa salgai. 943 76 02 12.

Jaunartzeko bi traje (marineroa eta neskati-larena). 943 76 14 70.

Sega Master Sistem 2 kontsola. 943 76 47 82.

Jaunartzeko trajea salgai. 639 93 68 41.

Bi bizikleta egoera one-an salgai. 943 76 13 53.

Espasa Calpe hiztegi-entziklopedikoa

(27 tomo). 943 77 05 95 (Jacinto).

EROSI

Singlear eta LPak eros-ten ditut. 943 52 65 77.

EMAN

Furgonetarako goiko parrila oparitzen dut. 943 76 58 37.

GALDU

Bi belarritako desberdin galdu ditut, zilarrezko-ak, Toki Eder eta Bolu artean. 943 76 52 39.

AURKITU

Ezkontza eraztuna topatu dut Patxi-Amaia ize-nekin, Ganbara ondoan. 943 76 48 10.

Mugertza eta Ipar Cen-ter artean dirua eta ob-je-tu pertsonalak aurkitu nituen. 943 76 12 86.

BESTELAKOAK

Aterkinak konpontzen dituen norbaiten berri izan nahi nuke, aterkina konpontzeko. 943 76 52 39 (Gema).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

ELEKTRIZISTA LAGUNTZAILEA
Deba Garaia. 15495/2

KONTABILITATEKO ADMINISTRARIA
Ibai ezker alde. 15883/3

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 16318/4

ZERBITZARI LAGUNTZAILEA
Gasteiz. 16349/5

ZERBITZARIAK, 2
Kantabria. 16579/3

GARBITZAILEAK, 2
Kantabria. 16580/2

ESKAIOLISTA
Donostia. 16689/5

SUKALDARI LAGUNTZAILEA
Ibai ezker alde. 16716/4

BITXIDENDAKO DENDARIA
Ibai ezker alde. 17246/2

GALDARAGILEA
Durangaldea. 16898/5

TRUKELGILEA
Goierri. 16940/3

SOLDATZAILEA
Deba Garaia. 16970/5

GALDARAGILE LAGUNTZAILEA
Plentzia-Mungia. 17005/3

INFORMATIKA IRAKASLEA
Ibai eskuinaldea. 17111/2

GOI MAILAKO INDUSTRI INJINERIA
Bilbo. 17170/1

GOI MAILAKO INDUSTRI INJINERIA
Bilbo. 17172/1

IRAKASLEA
Mallabia. 17186/6

FINANTZA PRODUKTUEN KOMERTZIALAK, 4
Arabako lautada. 16770/3

Las eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

RPS: 292/98

Ψ
NARE
psikologoak

HAURRAK-HELDUAK-BIKOTEAK

Isasi 17, 1-B EIBAR
Tf. 943 20 05 95

Dietetika eta Nutrizioa
Lorea Aramburu Doktorea

- Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna.
- Bordeleko Unibertsitateak Dietetikan eta Nutrizioan diplomatua.
- Bordelkeko Unibertsitateak Kirol Medikuntzan diplomatua.

Tratatzen diren osasun arazoak:

- Kolesterola
- Loditasuna
- Diabetesa
- Azido urikoa
- Arteria hipertentsioa
- eta abar.


Ordutegia: Goizez eta arratsaldeaz

INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA

Erdiko kale 22, 1. • ARRASATE • Tf. 943 79 72 16

POL-POL
Taberna

☎ 943 76 07 78



Dictators eta The Animals talde mitikoak Bergaran izango ditugu eguakitz eta zapatuan

Mondo Sonoro musika aldizkariaren 50. zenbakiaren kaleratzea ospatzeko atzorako iragarrita zegoen makro jaialdiaren ostean, beste bi kontzertu handi iragarri dira eguakitz eta zapaturako Jam aretoan: Dictators eta The Animals rock talde mitikoak izango ditugu asteburuan Amillagan.

Dictators iaz ere Jam aretoan izan genuen. Askorentzat, 1998an zehar Jam-en antolatu ziren emanaldien artean, onenetakoa izan zen amerikarrena. 70eko hamarkadako punk-rock azkarrekin zur eta lur laga zituzten bertaratuak. Lortutako arrakasta dela eta, berriz ekarri dituzte.

Dictators-en aurretik Hot Dogs urretxuarrek joko dute gaur. Hauek ere iaz Bergaran ikusteko aukera izan genuen; Pazkuetan Bideberrin jo zuten. Oinarri instrumental sendo baten laguntzaz, eszenarioan dena ematen duen horietakoa da Hot Dogs. Ikusgarria da benetan euren zuzenekoak. Emanaldia gaueko 10etarako iragarri da. Sarrerak 1.800 pezetan salduko dira aurrez erosiz gero eta 2.000 pezetan tiki-lan.

RHYTHM & BLUESAREN HASTAPENAK

Zapatu gauean, bestalde, The Animals talde ingelesa, 60ko hamarkadako tal-



Zapatuan Bergaran izango den The Animals taldeko partaideak. Gaur egun Eric Burdon barik.

de mitikoa, gerturatuko zaigu. Rolling Stones eta The Yardbirds-ekin batera, rock & roll eta rhythm & blues talderik ospetsuenetakoa izan zen bere garaian. Eric Bardon-ek eta John Steel-ek Newcastle-en sortutako taldeak, mundu mailan ospetsuak izan ziren hainbat kantu konposatu zituen. Taldeak, halere, ez zuen asko iraun, 1966an banandu egin zen eta. Orain dela bost urte, bestalde, Hilton Valentine-k eta John

Steel-ek, hasierako The Animals-ekoak, taldea berregin zuten eta mundu osoan zehar ibili dira, zuzeneko emanaldietan sekulako arrakasta lortuz. Martxoan zehar lau emanaldi eskainiko dituzte Estatu hainbat eszenatokitan. Zapatuan Bergaran eskainiko dutena gaueko 10etan hasiko da eta C.V. taldea izango da teloneroa. Sarrerak 2.000 pezetan jarriko dira salgai, ohizko tokietan. Tiki-lan, 2.300 pezetan salduko dira.



Mari Jose Olaziregi alkatearekin eta Bizente Huizirekin.

Gazteen irakurzaletasunari buruzko liburua aurkeztu zen Udaletxean

Eguakitzean aurkeztu zen Udaletxean Mari Jose Olaziregiren "Euskal gazteen irakurzaletasuna" liburua. 1995eko Justo Garate bekako deialdiari esker argitaratutako liburuaren nondik norakoak azaldu zituen egileak. Berarekin batera, Victoriano Gallastegi alkatea eta Bizente Huizi beka-

ko epai-mahaiko kidea izan ziren aurkezpen ekitaldian. Azken honek, autoreak egindako lana nabarmendu zuen eta soziologia, linguistika eta historia arloan euskarazko ikerketa-lanak kaleratzeak duen garrantzia azpimarratu zuen. Liburua 2.000 pezetatan jarri da salgai.

BERGARA EZAGUTZEN LEHIAKETA

Jotapurtu eta Errastisklas, final erdietarako txartelaren bila arituko dira lehian gaur



Hik Galdeu eta Petu Petuan taldeak oso ondo ibili ziren joan zen astean eta sailkapen nagusian lehen postuetan dira.

Gaur jokatu da "Bergara ezagutzen" lehiaketakobigarren faseko azken jardunaldia. Hik Galdeu eta Petu Petuan taldeek final erdietarako txartela lortu dute dagoeneko. Beste bi postuak daude jokoan.

Joan zen eguakitzeko jardunaldian fin ibili ziren bi taldeak eta biek berrehun eta bosna puntu lortu zituzten. Beraz, berdinduta amaitu zuten, baina Eli eta Gotxus-ek baino puntu gehiago lortu zituztenez, final erdietarako txartela eskuratu zuten. Galderetan, Petu Petuan nagusitu zen. Honek 185 puntu lortu zituen eta Hik Galdeu-k, berriz, 170. Proba grafikoan, ostera, Hik Galdeu taldeak 15 puntu lortu zituen eta Petu Petuan-ek ez zuen punturik lortu. Azkenik, kanpoko jokoan, bi taldeek asmatu zuten eta hoge-

na puntu lortu zituzten. Bestalde, ikusle-en artean egiten den galdeketa Nerea Mujikak irabazi zuen eta berak eraman zuen kamiseta. Aurkezle lanetan Mireia Larrañaga aritu zen.

Gaurko jardunaldian Izaro Aperribaik egingo ditu aurkezle lanak. Jotapurtu eta Errastisklas arituko dira lehian. Bi taldeak fin ibili beharko dira Hik Galdeu, Petu Petuan eta Eli taldeek lortutako puntu kopurua gainditzeko.

SAILKAPEN NAGUSIA

1. Hik Galdeu 205 puntu
2. Petu Petuan 205 puntu
3. Eli 201 puntu
4. Gotxus 166 puntu

AZKEN JARDUNALDIA

Jotapurtu (DBH 4, Mariaren Lagundia)
Errastisklas (2 HSOL, Aranzadi ikastola)

salduenak / otsaila

LIBURUAK

Euskaraz

1. KRABELINA BELTZA
Juan Martin Elexpuru. Txalaparta
2. BANBULO. KRISIA
Bernardo Atxaga. Erein
3. EUSKAL IDAZLEEN IPUJIN EROTIKOAK
Hainbat. Txalaparta
4. OROITUZ.
Jon Arretxe. Elkar
5. URREGILEAREN ORDUAK
Pako Aristi. Erein

Erdaraz

1. HIJA DE LA FORTUNA
Isabel Allende. Areté
2. COMIDA SANA PARA SABER VIVIR
Roselló y Torreiglesias. Plaza & Janes
3. EL HEREJE
Miguel Delibes. Destino
4. EL ABISINIO
Jean Christophe Rufin. Ediciones B
5. EL SOL DE BREDA
Arturo Pérez-Reverte. Alfaguara
Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu

DISKOAK

1. DESDE MI AZOTEA
Navajita platea
2. RAÍZ
Pedro Guerra
3. TIERRA DE NADIE
Hevia
4. COMIN' ATCHA
Cleopatra
5. COLECCIÓN 1985-1998
Duncan Dhu
6. BELIEVE
Cher
7. 30: VERY BEST OF
Deep Purple

Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Iraila 5 ☎ 943 76 53 09



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Irudi geometrikoa. 2. Irautearen ondorioa. Tona. 3. Landare-mota. Neoia. 4. Eguneroko janari. Erbioa. Entzumenik ez duena. 5. Titanioa. Danbor-mota. 6. Neba. Emakume izena. 7. Iparraldean, berritsu. Potasioa. 8. Lehenengoa. Ez eme. Barre xumea. 9. Deia. Iodoa. 10. Barazki ezaguna. Bakterio-mota.

Goitik behera

1. Pilotaz emaniko kolpea. 2. Ondorioa. Ukatzeko. 3. Gura. Atsegina. 4. Istua. Arabako herria. 5. Espartinak. Laborarien Biltzarra. 6. Gudu jarraien multzoa. Verdiren opera ezaguna. 7. Zintzoa. Berriro. 8. Sodioa. Hegazti harrapari. 9. Oxigenoa. Zer modutan. Bokala. Berrogeita hamar. 10. Irten. Hegazti-mota.

Soluzioa

10. Atera. Kalo.
9. O. Nola. LL.
7. Oza Berriz. 8. Na. Gabirai.
5. Akerak. LB. 6. Gerra. Aida.
3. Nahi. Alai. 4. Tia. Aitara.
1. Ploakada. 2. Eragina. Ez.
Goitik behera
3. Oaxidia. I. 10. Aza. Bazilo.
7. Kalkari. K. 8. A. Ar. Irtia.
3. Alabala. 6. Anala. Eba.
2. Loharra. Ne. 4. Ogi. Er. Gor.
1. Ploakada. 2. Iraupena. I.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein da plaza honen izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Zein da Udaletxean ikusgai dagoen argazkien erakusketaren izenburua?
A- Bergara argazkitan
B- Bergara iruditan
C- Bergarako argazkiak
2. Zein da Merkataritza Ganbarak saritu duen Bergarako enpresaren izena?
A- Fit Automation
B- Fit Automocion
C- Fagor Automocion
3. Zein izan zen The Animals talde mitikoaren liderra hasierako urteetan?
A- Eric Clapton
B- Eric Burdon
C- Eric Bikingoa

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Iraho** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Eladio Blancorentzat** izan da: Etxagi jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Eladiori! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Ozaeta jauregia** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**



Amillaga 23, gasolindegi ondoan.

943 76 15 59

Bolintxo baserrikua, Andres Mujika bere gizona zanarekin Tartufo zabaldu zeban Begok 1971eko maiatzaren 29xan. Ordutik bertan dihardu lanean eta berak esaten daben moduan "nere arimia be hemen laga dot".

Zer izan nahi ziñuan txikitán?

Ez neukan ametsik, bizi guztia lanian emon dotelako, okindegixan eta hemen.

Nondik Tartufo izena?

Molière idazlian satira bat da.

Tartufoko sasoirik onena?

Hasierako urtiak. Bizkaixa eta Goierri aldeko bikotiak etortzen ziran eta sartzeko zain egoten zan jentia.

Bikotiak bakarrik zeuken aukeria?

Bai, eta oilaskua eta txanpaña zerbitzen gontsen.

Laneko gauzarik onena?

Klientiak emoten dotzuen poztasuna.

Eta txarrena?

Ofizio hau oso sakrifikaua dala.

Sukaldian ala barran gustorago?

Komedorian, zerbitzen.

Lanerako beharrezko kualidadia?

Karakter onekua izatia eta diskreziñua.

Lan gehixen, noiz?

Martxotik abuztura bittartian.

Norekin afalduko ziñuke gustora?

Kevin Costner aktoriakin.

Eta zer afalduko ziñuke?

Zeozar ariña txanpan hotzarekin. Eta afalosterako berriketaldi atsegin bat.

Gustoko jantzi bat?

Sport jantzi bat.

Zein perfume erabiltzen dozu?

Erregalatzen dostenak.

Ilepaindegira zenbatero juaten zara?

Hamabostian behin-edo.

Bego Arizabaleta

Asteko egun bat?

Eguakitza.

Kolore bat?

Beltza eta txurixa.

Maniarik?

Etxe ingurua txukun egotia.

Zerekin jartzen zara sutan?

Arrazoa daukatela jakinda be, kontra egiten dostenean.

Eta barre zerekin egiten dozu?

Edozer gauzakin.

Negar egin dozun azken aldia?

Gaur gabian, sarritan egitten dot.

Zenbat ordu egitten dozu lo?

Zazpi bat.

Eta zerekin egitten dozu amets?

Denbora libre gehixago izatiakin.

Telebisiñua ala irratixa?

Telebisiñua piztuta eukitzen dot.

Urtaro bat?

Udaberrixa.

Emakumearen eguna ospatuko dozu astelehenian?

Sekula ez dot ospatu...

Bidaia bat nora egingo ziñuke?

Kanarietara, Maspalomasera.

Irla desertu batera erungo ziñukien hiru gauza?

Lagun on bat, liburu bat eta toalla bat. **B**



D I M
bularretakoarekin
...
kuleroak
opari!

Nerea
Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52

Idurre eta Nagore, Ostadar ilepaindegikoak

Jaunartze
eta
ezkontzetarako
era guztietako
orrazkera
eta makilajeak

Ilepaindegi mistoa
estentsioak-makilajea
fantasia koloreak-solariuma-eta abar

Estilistak

Espoloia 4. behea. Bergara Tf. 943 76 72 76

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32



Labegaraietan meza ostean, 1953an

Aste honetan 1953ko udaberrian Esteban Inziarte fraile bergarrak Labegaraietako elizan lehen meza eman zuen eguneko argazkia ekarri dugu. Jende asko bildu zen Labegaraietan egun hartan eta hainbat ospakizun izan ziren. Mezaren ostean, argazkilariak goiko erretratu bikaina atera zien Esteban Inziarteren lagunei. Hara hor zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

Zutik: Javier Mujika, Koldobika Irizar, Javier Retegi, Alejandro Mujika, Javier Fernandez, Paulo Lopez, Iñaki Gardoki, Miguel Moñux, Sebastian Agirre, Javier Azkarate, Esteban Inziarte, Martin Alberdi, Luis Alberdi, Francisco Gabilondo, Simon Arenaza, Angel Mendi-

bil, Iñaki Goikoetxea eta Joaquin Zeziaga.

Erdi makurtuta: Jose Mari Zubimendi, Felix Biain, Victoriano Gallastegi, Miguel Mendibil, ezezaguna eta Javier Oiarzabal.

2. ilaran (belauniko daudenetatik hasita): Jesus Zeziaga, Jesus Mari Arietaleaniz, Ramon Mendibil, German Arregi, Vicente Agirrezabal, Jose Goikoetxea, Gurutz Usabiaga, Juan Lopez, Jose Mari Markoida eta Juan Cruz Bengoa.

Aurrerago: Luis Ezpeleta, Javier Agirreola (txapelarekin), Francisco Juaristi, Carmelo Mendibil, Francisco Retegi eta Paulo Arrizabala.

Argazkia: Javier Oiarzabal



☎ 943 76 20 61



Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21




MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



Karatea



Aerobic Step



Makinak



Giartzu

Boni Laskurain 3
Telefona: 943 76 35 71



Mantenimendua




Benda tratamendua




Erlajazio masajea



Drenaje linfatikoa



Laser depilazioa



Zimurren aurkako tratamendua




Tinkatze tratamendua



Azalaren hidratazio sakona

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



BI SOLAIRUTAKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO RKAUZ

FAGOR

ALTZARIAK

SUKALDE INTEGRALA



Araba etorbidea 20 • Tf. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Mitarte 3 • Tf. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA